



Nazkatuta!

Horrela sentitzen dira ergoendarrak ibarra hondakindegia bihurtu zaiela ikusita / 7



Pinto olaztiarrak garatu duen eguzki paneletarako beira berria eraginkorragoa da / 2-3

Hirigintza plan berria egin aurretik herritarren beharrak jakin nahi ditu Etxarri Aranazko Udalak / 9

Zahartze aktiboko eskaintza berriak, Vivifrail programak, arrakasta handia izan du Altsasun / 6




EGUBERRIETAKO GEHIGARRIA

Ezkurdiak ikusgarri hasi du Binakakoa; Zabaleta eta Martija elkarren kontra ariko dira Labriten / 12

Aitor Goikoetxea koordinatzaileak eraldaketa ekarri du Lagun Artea futbol klubera / 26-27


SINADURAK



JOSUNE AZPIROZ
IMAZ / 4



IRATI PELLEJERO
MARIN / 30



Jasone Etxebeste Haize Berriak-eko zuzendari berria lehenengo kontzerturako prest / 31

"Naturak arazo guztiei erantzuna ematen die"

CRISTINA LEYRE PINTO FUSTE DOKTOREA

Cristina Leyre Pinto Fuste doktore olaztiarrak, eguzki paneletarako beira berri bat garatu du, horren eraginkortasuna handituz eta mantentze lanak merkatuz

Ahiletz Nuñez Galartza OLATZAGUTIA Zaragozako unibertsitatean egin zituen bere fisikako graduako unibertsitate ikasketak. Bertan ere, energia berriztagarrien eta energia eraginkortasunen masterra egin zuen. Gerora, Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikulatu zen doktoretza industrialean aritzeko, eta CENERen (Energia Berriztagarriaren Zentro Nazionala), hiru urtez egon da ikertzaile moduan trebatzen. Zenbait ikerketa artikulutako egilekide ere izan da. Gaur egun, Pintoren lana eguzki energia departamentuan dago, CENEReko laborategietan, teknologia departamentuan.

Zein dira garatu dituzun egitura nanometrikoen abantaila nagusiak gaur egun merkatuan dauden irtenbide komertzialen aldean?

Beira funtsezko osagaia da eguzki moduluendako: eguzki zelula babesten du euriaren, hezetasunaren eta hautsaren aurka eta gardena denez, eguzki izpiak pasatzen uzten ditu, zelulara iristen ahalbidetuz. Baina beira ez da guztiz gardena, eta eguzki izpien zati bat islatzen du, %,4,

eta beraz, eguzki izpi horiek ez dira zelulara iristen eta, ondorioz, ez dira elektrizitate bilakatzen. Horregatik, industrian islapenaren kontrako estaldura batzuk ematen dituzte, argi hori ez galtzeko. Bestalde, beira pixkanaka zikintzen da, eta zikinkeria horrek argiaren sarrera oztopatzen du. Horregatik, lekuaren arabera, moduluak garbitu behar izaten dira. Hori dela eta, arazoa sortzen da: garbiketa prozesuek sarritan estaldura hori urratzen dute, eta, ondorioz, haren eraginkortasuna gutxitzen da. Gure proiektua arazo horri irtenbidea emateko sortu zen. Abrasiorako prozesuekiko erresistenteak izango ziren beirazko egiturak fabrikatu nahi genituen, honako propietateak izanda: isla kontrakoak, zikinkeria aurreratuak, autogarbitzaileak eta hozte pasiboa eskaintzeko gaitasuna. Horrela, bi estruktura mota sortu genituen, nanokonoak antiislapena, zikinkeria aurreratuak eta autogarbitasun propietateak emateko, eta mikro zilindroak hozte pasiboa izateko. Bi estruktura batuta izanik, loto hostoaren estruktu-

ren antzekoak lortu genituen. Propietate horiekin, balio bizitza handitzea ere lortu genuen, gutxi gorabehera, hiru urtetara luzatuz. **Eguzki plaken balio bizitza handitzea lortu duzue, zein da zuen lanaren funtzioa hobekuntza horretan?** Guk bi egitura mota sortu ditugu, alde batetik oso kono txikiak, nanokonoak, eta, beste alde batetik, egitura handiagoak, mikro zilindroak. Hain eskala txikia dutenez, mikroskopio elektronikoak behar dira ikusi ahal izateko, ohiko mikroskopioek baino uhin txikiagoak

"ENPRESA INTERNAZIONALEKIN GABILTZA HIZKETAN GURE APLIKAZIOAN INTERESA PIZTEKO"

"IRITZI PERTSONAL GISA, FISIKA ZIENTZIA GUZTIEN AMA DA. ZIENTZIA MOTA GUZTIEN OINARRIA"

sortzen dituztelako. Egitura txikiekin antiislapena, antizikintasuna eta autogarbitasuna lortu ditugu, eta egitura handiagoekin hozte pasiboaren gaitasuna lortu dugu. Hauda, beirak zelulak sortzen duen beroa xurgatzea eta beroa birigortzea, espaziora bidaltzen da, moduluak hoztea lortuz eta balio bizitza luzatuz. Eguzki plakek, aparatu elektroniko guztiek bezala, aparatuen tenperatura igotzen denean, okerrago funtzionatzen dute. Eguzki plaketan batez ere, estaldura tenperatura gradu bat igotzen denean, beraien eraginkortasuna %0,35 erlatiboan jaisten da eta balio bizitza %7 jaisten da. Beraz, hoztasun pasiboaren gaitasunarekin, moduluaren tenperatura bi gradu jaitea lortu dugu, egun eguzkitsuetan. Beraz, kalkulu azkarrak eginez, emandako aurrerapenei esker moduluen bizitza hiru urte luzatzea lortu dugu. Mantentze lanak ere erraztu dira auto garbiketa eta zikintasunaren kontrako ezaugarriek esker.

Nola lortu zenuen naturaren printzipioak teknologiarekin uztartzea zure ikerketan erabilgarri izateko? Natura imitatzen saiatzen gara, milioika urte izan baititu eboluzionatzeko eta egitura optimoa lortzeko. Eta gu, zaildu aurretik, naturaren printzipio horiek imitatzen saiatzen gara gure egituretan. Gure lana naturak asmatu dituen konponbideak bilatzea da. Nik hasita zegoen lan bati jarraipena eman nion. Lan honetan, beirak RIE deituriko ekipobatean sartzen dira estrukturak egiteko, eta horrela lehen aipatutako hiru propietateak emateko: antiislapena, zikintasunaren kontrakoa eta autogarbitasuna. Lehenengo probetan lortu genituen estrukturak, ordenagailu simulazioetara pasa genituen egitura optimoena lortzeko, bertan estrukturak simulatzeko erraztasuna dagoelako. Fase horretako zailtasuna, estruktura aleatorioak simulatzea da. Normalean egitura periodikoak simulatzen dira, baina gu, nanokono aleatorioak genituen. Momentu horretan, nire zuzendariak aurkitu zuen artikulua

batean oinarritu ginen, bertan estruktura aleatorio batzuk simulatzen ziren, bitxiene zen egitura horiek tximeleta baten hegaletatik zetoze. Artikulu horri esker, gure nanokonoak simulatzeko oinarri matematikoak hartu genituen eta ordenagailuan simulatuak izan ziren, estruktura optimoa aurkituz. Gero, hurrengo fasean, nanokonoak mikro zilindroekin batu genituen, loto hostoak dituzten egiturak bezala lortuz.

Zeintzuk izan ziren erroka nagusiak beiraren loto begien itxura egitean?

Bi estruktura izanda, lehenbizikoa nanokonoak, RIE ekipoen sartzen dira, bertan aire guztia ateratzen zaio eta gas berezi bat sartzen da beirari forma emateko. Gas hori ionizatze prozesu bat pasa eta gero plasma bilakatzen da eta beira kimikoki eta fisikoki jaten du. Prozesu mekanizatu da hori, zailtasunik gabekoa. Arazoa estruktura handiagoekin gertatzen da, zilindroekin. Prozesu luzeagoa darama horrek, RIE makinatik pasa baino lehen prozesu fotolitografiko batetik igaro behar delako, estruktura periodikotasunarengatik. Gerora, estruktura handiagoak lortzeko aukera ematen digute. Diferentzia handia dago estruktura batetik bestera, RIE makinatik igarotzen den bora asko luzatzen delako. Zenbait minutu besterik ez dira behar nanokonoak egiteko, baina zilindroek aldiz orduak behar dituzte, hau izan da zailtasunik nabarmena. Beraz, gure produktuak estruktura batetik bestera "FUNGLOSS" deiturikoa nanokono osatuta egongo da. Zilindroak aldiz ikerketan jarraituko du. **Mantentze lanetan, aipatzen duzue beira "autogarbitzailea" dela. Deskriba dezakezu nola funtzionatzen duen prozesu horrek eta zer eragin duen mantentze kostuetan plaka konbentzional batekin alderatuta?**

Beira normala hidrofila da, eta nanokonoak egiterakoan, propietate hau maximizatzen dugu eta superhidrofila lortu. Horrela, ur tanta bat erortzen denean erabat



EGOKI
Ventanas PVC Leihokak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



barreiatzen da, hauts eta zikin-
ria partikulak harrapatuz. Modu-
luaren inklinazioaren bidez, zikin-
keria hori arrastaka eramango da.
Orain lortu nahi duguna da ura-
rekiko superhidrofobia garatzea.
Esaterako, beira eta ura elkarren-
gandik aldentzea. Hori lortzeko
beste geruza fin bat atxiki diogu
bidrioaren goiko aldeari. Helburua
da tantak esfera moduan geratzea
eta arrastakatzearen bidez auto-
garbiketa bermatzea. Bi portaerek
autogarbitasun propietatea ematen
diote beirari, baina klimaren ara-
bera, portaeratako bat hobeia izan-
go da bestearen alde.

**Zure ikerketaren beste alderdi in-
teregarri bat modulu fotoboltai-
koetan tenperatura murriztea da.
Nola laguntzen du hozte horrek
sistema fotoboltaikoen eraginkor-
tasuna eta balio bizitza hobetzen?**

Gure sakelako telefonoen antze-
ra, moduluak berotzen diren
heinean efizientzia galtzen dute.
Oinarri fisikoa gertatzen da,
argia iristen da, eta horrek elek-
troi bat askatzen eta garraiatzen
du. Gainberotzen denean, bibra-
zio handiagoa eragiten du atomo
gehiagotan, elektroari bidetik
oztopoak jarritz, esaterako, ten-
peraturak gora egin ahala fun-
tzionamenduak behera egiten
du. Guk honi aurre egiteko es-
truktura mikrometrikokoak egin
ditugu, hozte erradiaktibo pasi-
boa eskaintzeko. Hemen printzi-
pio horren gauza politenetako
bat, emititzaile orduan, zeru-
rantz botatzen du eta oskarbi
badago espaziora iristen da zu-
zenean, gauzak horrela diferen-
tzia handiko kontraste termiko
bat egoten da modulua 60° al-
de dagoelako eta espazioan -200ko
aldea dagoelako, horrela beroa
erraztasun handiz garraiatzen
da. Esaterako zilindroak zelulak
sortzen duen bero guztia erre-
mititzen du espaziora. Horrela
moduluaren tenperatura jaitsi
eta balio bizitza luzatzen dio.

**Zure ikerketak aplikazio praktiko
handia du. Zure ustez, teknologia
hori erraz txerta daiteke gaur egun-
go modulu fotovoltaiiko komertzia-
letan, edo oraindik zerbait falta da
eskala handian ezartzeko?**

Lehen esan bezala, kono horiek
lortzen ditugun ekipoa "RIE" oso
handia da. Hala ere, plaka osoak
garatzeko ekipoa handiagoak behar
dira. Orainxe puntu horretan
gaude, zenbait enpresarekin ja-
rri gara harremanetan ekipo
horren eskala handitzeko asmoz,
gerora gure beirak bertan landu

ahal izateko. Hau da gure lehen
muga industrian ikusi aurretik.
Aplikazio berriak bilatu beharko
ditugu ere industriako interesak
pizteko eta gure RIE ekipoa es-
kalatzeko ere.

**Zein da zure ikerketaren inpaktu
potentziala energia berriztagarrien
industrian?**

Funglass-en inpaktua, esan be-
zala, islapenaren kontrako emai-
tza hobeagoa eskaintzen du solu-
zio komertzialak baino, eta balio
bizitza luzatzen die moduluei.
Badira egunero garbitu beharko
diren plakak, haien kokalekua-
gatik edota lekuko klimarengatik.
Gure produktuarekin aldiz, zi-
kintasunaren kontrako eta auto-
garbiketa prozesuei esker, egunez
egun langileen mantentze proze-
su hori ekiditen da. Mantentze
kostu handia aurreztu daiteke
horrela, eta moduluaren funtzio-
namendua ere denbora luzeagoz
bermatzen dugu.

**Energia berriztagarritan duzun es-
perientzia kontuan izanda, nola
ikusten duzu eguzki energia foto-
voltaikoen etorkizuna? Zein au-
rrerapen gustatuko litzaizuke ema-
tea datozen urteetan?**

Energia horrek menderatuko du
etorkizuna, eolikoaren beste ener-
gia berriztagarriekin batera;
gauzak horrela, sekulako insta-
lazioa sortu beharko litzateke
Europar dauden helburuak lor-
tzeko. 2050erako Europa energe-
tikoki neutroa izatea behar dugu,
hau da, kontsumitzen ari garen
energia guztiak zerumuga berriz-
tagarria izatea. Dagoeneko ni
hasia naiz fotovoltaiiko gehiago
ikusten, adibide dugu Ziordiko
frontoia. Beste aurrerapen handia
ere gerta liteke agrovoltaiarekin.
Eztabaida handia dago, eremu
hori guztia fotovoltaikoz beteko
dugula esanez, baina ez da zertan
fotovoltaiikorik jarri beharko lur
mailan, pixka bat gorago jar dai-
tezke eta modulu azpian nekaza-
ritza produktuak landatu. Modu-
luen orientazioa alda daiteke
motor baten bidez kontrolatuta,
ekialderago jar dezakezu, men-
debalderago, komeni zaizunaren
arabera, edo landatutako landa-
reen nahiaren arabera, horrela
eguzki orduak kontrolatuz eta
klima gertaeretatik babestuz
(txingorra, izotza...). Esaterako,
agrovoltaikoa, funtsean, nekaza-
ritza produktibitatea handitzean
oinarritzen den aplikazioa da;
hau da, fotovoltaikoa erabiliko
dugu janari gehiago ekoizten la-
guntzeko. Beste aplikazio bat da,



Cristina Leyre Pinto Fuste, doktorea. UTZITAKOIA

adibidez, fotovoltaikoa flotatzai-
lea aurkitu dugula, baita gai bera
erabiltzen gabilta lurra laboran-
tza izan daiteke edo biodibertsia-
tatea aprobetxatu ere.

**Fisikan eta energia berriztagarrie-
tan duzun prestakuntzak, UCLan
egin duzun egonaldiarekin batera,
energia garbiei buruzko ikuspegi
globala eskuratzeko aukera eman
dizu. Nola eragin dizu nazioarteko
esperientzia horrek ikerkuntzarantz
duzun ikuspegiari?**

Beno, egonaldiak oso garrantzi-
tsuak dira edozein ikertzailearen
bizitzan, edozein doktoretzare-

**"FOTOBOLTAIKOA
ERABILIKO DUGU
JANARI GEHIAGO
EKOIZTEN
LAGUNTZEKO"**

**"NATURA IMITATZEN
SAIATZEN GARA,
MILIOIKA URTE IZAN
BAITITU
EBOLUZIONATZEKO"**

nean, beste laborategi batzuetan
egoteko eta bertan ikerketak
egiteko aukera dagoelako. CE-
NERen egiten ari nintzen prak-
tikak eraman nituen UCLara
(Kalifornia, Los Angeleseko
Unibertsitatea). Bertan gauza
pila ikasi nituen, simulazio pro-
grama berriak erabiltzen eta
nire alderdi profesionalean lan-
tzen. Alde pertsonaletik ere se-
kulako ikasketak ekarri nituen
bertatik, nire ingeles mailak
sekulako gorakada lortu zuen.
Hiru hilabete haietan nire ger-
tuko guztiekin egiten bainuen
hizkuntza honetan. Lasaitasun
handiz hartu nuen egonaldia ere.
Nire doktoretzako azken urtean
egin nuen bidaia hori eta, dagoe-
neko, landu behar nuen tesia
amaituta nuen, gauzak horrela
nire zuzendariak esperientzia
gozatzeko eta ikasteko esan zidan.
**Doktoretza amaitu duzunez, zeintzuk
dira hurrengo ikerketa proiektuak?**
**Teknologia hau garatzen jarraitze-
ko asmoa duzu edo energia berriz-
tagarrien barruan arlo berriak es-
ploratuko dituzu?**

Dagoeneko nire doktoretza amaitu
dut eta CENERek kontratatu nau,
orduz geroztik proiektu guztietan
nabil murgilduta enpresa barruan.
Oraintxe, oso sartuta nabil plaka
fotovoltaiikoen jasangarritasunean.
Modulu bat hainbat zatiz dago
osatuta eta berotutako plastiko
batekin dago itsatsita. Ni lantzen
ari naizena da hondakin horien
materialak berrerabiltzeko eta
birziklatzeko modua. Interes han-
dia dago Europar hondakin horiek
birziklatzeko eta berrerabiliak
izateko. Doktoretza egiten dabilen
lankide bat ere laguntzen ari naiz,
modulua berriz diseinatz, mate-
rialen bereizketa garbi eta birzi-
klagarria mantendu ahal izateko.
**Bukatzeke, uste duzu zure lanak
beste zientzialari batzuk inspiratu
ditzakeela biomimetika beste ere-
mu batzuetako teknologia hobe-
tzeko irtenbide gisa aztertzea?**

Ni oso txikia sentitzen naiz mun-
du honetan eta ez dakit jendeak
nire artikulua eta bestelakoak
irakurriko dituen. Oraingoz
oihartzun handia eduki du egin-
dako lanak eta horrek poztzen
nau. Nire artikulua guztietan
aipatzen dudan moduan "naturak
arazo guztiei erantzuna eman
die dagoeneko". Ikertzaile gisa
gure lana erantzun horiek bilatzea
da. Noski, inspirazio izatea gus-
tatuko litzaidake. Fisika da pro-
zesu natural eta geologiko guztien
zergatia ematen saiatzen duguna.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Errazagoa da haur ahaltzuak haztea...

... apurtutako helduak konpontzea baino. Zer? Hori darabilt nire buruan azkenaldian plazan, kalean edo lanean haurrak eta gazteak ikusten ditudanean.

Noizbait baztertua sentitu zara? Horrela bada, altxa ezazu eskua... Zenbatek altxa duzue eskua? Norbait geldituko litzateke salbu? Ni, behintzat, ez.

Galdera hau eskola eremuan egin genezake eta ziur askok, uste eta nahi baino gehiagok, eskua altxatuko luketela.

Bihotza apurtu egiten zait taldean onartuak izateko jazarpena jasaten duten haurrak ikustea, urtetan hori jasandako gazte apurtuak terapian ondoan izatea ere bai.

Gauza bera gertatuko litzateke lan eremuan edo kalean galdetuko bagenu? *Bullying*-a, *mobbing*-a, hau da, beste pertsona bat erasotzea egunerokoa bihurtu da, eskola, kale, lan eremuan.

Aniztasuna maite dut, ez dut molde bereko pertsonaz inguratuta bizitzea nahi, garen modukoak izateko adorez betetako pertsonaz baino.

NOIZBAIT BAZTERTUA SENTITU ZARA? HORRELA BADA, ALTXA EZAZU ESKUA...

Ez dut nahi diren modukoak izateagatik zigor soziala eta bazterkeria jasotzea.

Beste behin ere hemen idatzi dudan bezala, helduok gara haur eta gazteen ispilu. Kalean haur

artean horrelako bat ikusten badut, guztiei laguntza behar duen galdetu eta jarreraren bat gelditu behar dela pentsatzen badut, gelditu!

Izan gaitezen haur eta gazte hauentzat espazio seguruak eta pertsona ereduak. Zenbait jarrera onartezinak dira eta horiei aurre egiten eta euren eskubideak modu egokian defendatzen irakastea, laguntza eskatzea bezain garrantzitsua da.

Azaroaren 25ean oihukatu genuen bezala, Konponbidea ez bazara, arazoa zara. Kasu honetan ere bai!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Sakanatik... Gazara!

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Ongi irakurri duzu, bai. Sakanatik Gazara! Genozidioaren gainetik, elkartasunak jarraituko baitu. Eta elkartasunez asko daki Sakanak, ongi aski daki solidarioa izaten.

"Ospatu" berri den Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren (abenduak 10) ondotik, eta Migrazioen Nazioarteko Egunaren (abenduak 18) aurretik, Elkartasunezko azoka burutuko da etzi, igandea, abenduak 15, Olaztiko frontoian 12:00etatik 14:00etara GAZAren ALDE!

Olaztiko herriko emakume talde baten eskutik, ostegunero bilketa burutu da Kultur Etxean. Jendeak emandakoak jaso, txukundu,

sailkatu eta azokarako prest utzi dituzte.

Eskerrik asko haiei egindako lanagatik, eta sakandarrei ere aldioro emandako guztiagatik. Eskerrik asko baita ere igandean azoka posible egingo duten boluntarioei, eta udalari ere, erraztasun guztiengatik.

Etziko elkartasun azokan, txoko anitzak izango dira: salmentarena, txapak egiteko tailerra (0,50 euro/txapa), jolas kooperatiboena, pintxoena, hausnarketarakoa, eta Salam Gaza elkartearen txokoa.

Zer da Salam Gaza? Nafarroan sortu berri den elkartea. Gaza-Palestina bere lanerako helburu, beste lurraldeetara zabaltzeko prest aurkitzen bada ere. Palestinarekiko sarraski bortitz hau hasi zenetik aritu dira bere kideak lanean

Gaza-Palestinaren alde, sakandar asko bezala.

Salam Gazako presidentea gazatiarra izanik, bertan familia izanik, jasotakoa Gazara bai ala bai iritsiko dela ziurtatzeko moduan gaude. Izan ere, igandeko azokan, Salam Gazako txokoan egindakoaren irudi batzuk ikusteko aukera izanen du bertaratu denak.

Askotara dira Gazako herria laguntzeko buruan ditugun proiektuak, egitasmoak eta tokikoek helarazitako premiak eta beharrak. Horiei aurre egiten laguntzeko berriro eskaintzen diogu aukera Sakanako herriari, herritarrei, Palestina izan edo ez, betidanik erakutsi izan duen eskuzabaltasuna eta elkartasuna adierazteko.

Genozidioaren gainetik, elkartasunak bizirik jarraituko duelako..... Sakanatik Gazara!

OBJEKTIBOTIK



ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren ostiralean, abenduak 20, izanen da urteko azken Guaixe astekaria. Ondoren oporretara joanen gara. Lanera, urtarrilaren 7an itzuliko gara baina urteko lehen astekaria urtarrilaren 17an argitaratuko dugu.



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Kolaboratzailea:
Ahiletz Nuñez Galarza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



"Arnas luzeko proiektua da eta denbora behar du"

SILBIA, JUANJO ETA UNAI GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEETAKO BURUAK Europako funtsekin martxan jarri zuten Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Teknoadineko egitasmoak heldu den urtean segida izanen du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA Teknoadineko egitasmoa 2023ko apirilean hasi zen. Bi arlotan lan egin da. Alde batetik, gizarte langileen ordenagailuetan Informazio Sistema Integrala jarri da. Horrek aukera ematen die langileei begi kolpean nahi gabeko bakardade egoeran dauden adineko pertsonak identifikatzeko. Bestetik, auzozainak lortzen aritu dira. Pertsona horiek adinekoen komunitateko pertsonak dira, profesionalak, zerbitzu eta saltokietakoak edo bizilagunak, laguntza lanak egin ditzakeenak.

Zertan datza teknoadineko?

Unai. Bakardade ez hautatuaren inguruko proiektu pilotu bat da. 65 urtetik gorako pertsonenei zuzendutako proiektua da, eta Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) hartu dute proiektu pilotu hori Nafarroan garatzeko ardura. Proiektu berritzailea da. Alde batetik, teknologia berriak eta betiko zaintza sareen arteko uztartzea egiten delako. Hori guztia OGZen baitan eta herritarren mesederako. Zerbitzuetan erabiltzeko teknologia tresna bat sortu da. Horrekin eta auzozain gisa parte hartzen dutenekin sareak sortzen dira, eta OGZekin batera lankidetzara programa garatzen da. Horregatik da programa berritzailea, pasatzen garelako eremu publikotik lankidetzara publiko komunitariora. Lan egiteko moldean ere aldaketa egiten da, lankidetzarako norabidea hartzen da. Eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu zerbitzu publiko komunitario bat sortzeko bidea ahalbidetzen digulako. Horrela bakardade ez hautatua dauden pertsonen zaintza sarea zabalagoa eta eraginkorragoa izanen da. Posible izanen da gizarte zerbitzuek pertsona horiei arreta lehenago eskaintzea eta, orokorrean, pertsona horien guztien bizi kalitatea hobetzea.

Zer bide egin duzue?



Silbia Sesma Nazabal, Juanjo Goikoetxea San Roman eta Unai Razkin Iriarte.

"TEKNOADINEKOK ZERBITZU PUBLIKO KOMUNITARIO BAT SORTZEKO BIDEA AHALBIDETZEN DIGU"

Juanjo. Zailtasunak ere izan dira, tresna teknologikoa egiteko udalen eta Sakanako gainontzeko erakundeen kolaborazioa behar zelako datuen trukaketak egiteko eta abar. Konplexua izan zen. Lanak hasiak daude, diagnosietatik gauza oso interesgarriak ateratzen dira eta, neurri batean, zuzeneko harremana izan da pertsonekin. Baina programaren martxan eten bat egon da segitzeko finantziak lortzeko, egitasmoa erdi kolokan egon da azken bi hilabeteetan.

Etena, zer gertatu zen?

Silbia. Proiektuaren finantziak lortzeko lastailean bukatzen zen eta itxi behar zuten. Segitzeko finantziak lortzeko mugitzen hasi ginen. Egia da eten bat egon dela, ezin da egitasmoarekin segi jarraitasun bat bermatzen ez bada. 2025erako finantzaketa lortu dugu: Nafarroako Gober-

nuaren aurrekontuetan 60.000 euroko partida bat aurreikusi da, eta zuzenketa bidez beste 9.000 euro gehituko dira. Egitasmoarako 140.000 euro inguru behar dira.

Juanjo. Egitasmoa finantzatzeko guk propio ahalegina eginen dugu. Eta beste diru iturri batzuk bilatzen ari gara ere.

Ez zarete geldirik egon.

Unai. Proiektua berez ez zen lastailean bukatzen, oraindik proiektu pilotua izaten jarraitzen du. Ziurrenik heldu den urteak ez du emango proiektua bukatzeko. Arnas luzeko proiektuak dira eta garatzeko denbora behar dute. Lastailaren hasierarako finantzaketa bukatu zen, Europako funtsarena, proiektuaren hastapenari ateak ireki zizkiona. Orain finantzaketa lortu dugu eta jarraitasuna izanen du. Gu saiatuko gara egitasmoa egonkortzen, arnas luzeko proiektu bihurtzeko.

Juanjo. Gure asmoa, gure nahia, gure borroka da proiektua iraunkorra izatea. Ikuspegi horrekin ariko gara Nafarroako Gobernuarekin ditugun bileretan. Behar horren inguruan adostasuna dago. Premia den heinean, eremu

publikoetik eta herritarrekin batera egitea izugarriko balio soziala eta estrategikoa du. Guretzat funtsezkoa da programa betiko izatea, hori da gure asmoa.

Hobe hainbat urterako finantziak lortzeko?

Silbia. Jakina. Hori borrokatu dugu. Sozialki oso interesgarria delako eta jendeak erakutsi duelako proiektu pilotua arrakastatsua izan dela. Carmen Maeztu Villafranca Eskubide Sozialetako kontseilariarekin ilbeltzaren 8an bilera dugu. Eta Felix Taberna Monzon Lehen Lehendakariorde eta Lehendakariorde eta Berdintasun kontseilariari ere bilera eskatu diogu. Bilera horietan haiekin partekatuko dugu proiektuaren balorazio positiboa eta finantzaketaz ere ariko gara. Egitasmoa ez da Sakanan bakarrik gelditu behar; guk interesgarri jotzen dugu

Nafarroa osora zabaltzea. Gu horretarako prest gaude, informazioa emateko edo gure esperientzia partekatzeko.

Zer pauso emanen dituzue 2025ean?

Unai. Orain arte egindakoan sakonduko dugu: auzozain diren herritarren eta dendarien prestakuntza handitu, boluntario gehiago lortzen ahaleginduko gara, oinarrizko mailan dagoen sare hori sendotu nahi dugu, eta bakardade ez hautatua duten pertsona gehiagorengana iritsi nahi dugu. Izan ere, ez gara 65 urtetik gorako sakandar guztienengana iritsi oraindik. Pare bat baheketa egin ditugu baina denbora faltagatik ez gara 65 urtetik gorako guztiengana iritsi.

Juanjo. Eta, bestetik, bakardade horri aurre egiteko ezarri beharreko neurriak diseinatzen hastea funtsezkoa izanen da.



ABENDUAK 16-20

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azalak
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Abenduak 16** SDOZE, Sergio Goikoetxea
- Abenduak 17** Garazi Arrula, Lurraz beste
- Abenduak 18** Bertso saioa (Bertsoa.eus)
- Abenduak 19** Ekhiñe Arriaga INTIA eta Teknoadineko egitasmoa
- Abenduak 20** Agenda berezia



Zahartze aktiborako eskaintza berria Altsasun

Udalak Vivifrail programako bi txanda egin behar izan ditu 220 pertsonen eman baitute izena. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz jarri da martxan

ALTSASU

Altsasuko Udalak herritarren artean zahartze aktiboa sustatzeko zenbait programa ditu martxan: Altsasu mugitzen ari da, Mugitu I, Mugitu II, 60 urtetik gorako jarduerak... Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuak eskaintza Vivifrail programarekin osatu du ikasturte honetan. Sara Salazar Romo teknikariak azaldu duenez, "proiektua esperientzia berritzailea da eta Nafarroako Gobernuaren babesa du".

Romok azaldu duenez, "programa berri hori Altsasun errolatutako 60 eta 69 urte bitarteko pertsonen zuzenduta dago. Altsasuarren erantzunak aise gainditu ditu gure hasierako aurreikuspenak. 120 lagun espero genituen, baina 220 pertsonen eman dute izena programan". Teknikariak azaldu duenez, "programa osagai anitzekoa da. Parte hartzaileek giharretako indarrak aparte, oreka, malgutasun eta ariketa aerobikokoak egiten dituzte". Salazarrek nabarmendu duenez, "programaren ezaugarri nagusia da ariketak pertsona bakoitzaren gaitasun funtzionalera egokituak eta individualizatuak direla. Hainbat ariketa maila daude, parte hartzaileen mugen arabera".

Programak hainbat helburu ditu. Alde batetik, 60 urtetik aurrera prebentziotik lan egitea, narriadura funtzionala saihesteko. Bestetik, bizimodu aktiboa izatearen onurak transmititzea, ariketa anitzeko programa bat eginez. Eta, azkenik, 60 eta 69 urte bitarteko pertsonen eguneroko jardueratan izan ditzaketen gaitasunak kontserbatzea edo balizko galerak atzeratzea. Horretarako, indarra eta oreka hobetzeko ariketak egiten dira, baita gaitasun aerobikoa hobetzeko ere. Saiok ekarpena egin nahi dute parte hartzaileen aldartea eta osasun psikoafekti-



Hainbat elementurekin egiten dituzte ariketak. KIROL ZERBITZUA

"ARIKETAK INDIVIDUALIZATUAK ETA BAKOITZAREN GAITASUNETARA EGOKITUAK DIRA"

boa hobetzeko. Horrekin batera, pertsonen eguneroko bizitzako jardueretarako autonomia hobetzea du helburu programak.

Jardueraz

Vivifrail programa Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) sustatu du. NUPeko lantaldeko kideek izena eman duen bakoitzari programa hasi aurretik duen osasun egoeraren balorazioa egin zioten. Programa dozena bat saioz osatuta dago. Haiek bukatzean parte hartzaileei beste balorazio bat egiten diete. Hori eginda, "NUPeko kideek parte hartzaileei lortutako emaitzen berri emanen diete. Gainera, Vivifrail entrenamenduak egiteko inprimatutako materiala emango zaie, beraien kabuz entrenamendu programarekin jarraitu ahal izateko", azaldu du Salazarrek.

Espero baino altsasuar gehiagok izena eman zuten, guztien nahiari erantzuteko bi txanda egin ditu Kirol Zerbitzuak. Aurrenekoan 120 parte hartzaile izan dira lastaila eta abendua bitartean. Hurrengo txandan ehun pertsona ariko dira. Vivifrail programako hurrengo hamabi saioak otsaila eta maiatza bitartean izanen dira. Zahartze aktiboko saio horiek Garbitoki eraikineko lehen solairuan, ludoteka zaharrean, egin dira. Salazarrek esan duenez, "jardueraren balorazioa oso positiboa izan da".

Programa eta hitzarmena

NUP eta Altsasuko Udalaren arteko lankidetzak hitzarmen baten ondorioz eskaini da Vivifrail programa. NUPeko Mikel Izquierdo Redin irakaslea da programaren koordinatzailea. Aldi berean, eta Navarrabiomed eta NUPeko Ariketa Fisikoa, Osasuna eta Bizi Kalitatea (E-FIT) taldeko ikertzaile nagusia da. Kirol Zerbitzua haren lantaldearekin koordinatuta ari da lanean. Hain zuzen, ikerketa lantalde horretako kide da Mikel Lopez Saez de Asteasu altsasuarra.



Hondakin Zerbitzuak dendetan utzi dituen galdetegiak eta haiek jasotzeko kutxa.

Hondakinak prebenitzeko konpromisoak saria du

Hamahiru produktuz osatutako eta 50 euroko balioa daukaten 400 kit zozketatuko dira

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak Zero Zabor Komertzioen programari segida eman dio. Aurten 400 zero zabor kit zozketatuko ditu. Kit bakoitzak hondakinak prebenitzeko hamahiru produktu dauzka, besteak beste: erosketarako gurdia, fruta erosteko poltsak, ur termoa, ogitartekoak eramateko, termoa, kizarak, kristalezko ontziak, erosketa poltsak. Kit bakoitzak 50 euroko balioa dauka.

Zozketan parte hartzeko ibarreko dendetan dauden galdetegi labur bat besterik ez da bete behar. Izen-abizenak eta telefonoa eman behar dira. Horrekin batera, paperean hondakinak prebenitzeko dauden hiru proposamenetako baten alde egin behar dute parte hartzaileek. Honakoak dira aukerak: ontzi gutxiagoko produktuak aukeratu ditut; janaria alferrik galtzea

gutxituko dut edo bota aurretik konpontzen saiatuko naiz.

Ibarreko erakundeko hondakin teknikari Olatz Garde Mazkianek azaldu duenez, "ekintza horrekin hondakinak prebenitzeko konpromisoa saritu nahi dugu. Baita bertako komertzioetan egindako erosketak sustatu ere". Jakinarazi duenez, "zozketan parte hartzeko epea abenduaren 20an bukatuko da eta abenduaren 23an egingo da zozketa. Irabazleekin telefonoz jarriko da harremanetan hondakin zerbitzua". Jarduera hori Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak garatu du eta Nafarroako Hondakin Funttsak finantzatu du. Funttsa hondakinei eta haien Fiskaltateari buruzko Foru Legearen bitartez sortu zen 2018an. Funttsa zabortegetan isurtzen diren hondakinei ezarritako zergarekin eta isunekin hornitzen da, besteak beste.

Autobus zerbitzu gehiago Iruñea eta Sakana artean

Iruñea-Gasteiz eta Gasteiz-Iruñea autobus lineatan geroz eta zerbitzu gutxiago daudela, hori da erabiltzaile sakandarren kezua. Badirudi kezuak eragina izan dutela Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritzan eta emakida duen La Burundesa enpresa beste lau autobus zerbitzu berri eskain-

tzen hasi da abenduaren 2az geroztik.

Batetik, Iruñetik Olatzagutia 09:30ean eta 12:30ean abiatuko dira bi zerbitzu berri, astelehenetik ostiralera. Bestetik, Olatzagutiatik Iruñera beste bi zerbitzu izanen dira 06:30ean eta 11:00etan, astegunetan ere. Goizeko 06:30etako autobus zerbitzua aurretik bazegoen, baina garagarrilaren 22an kendu zuten, eta abenduaren 2tik aurrera berriro martxan da, aipatutako beste hiru zerbitzuekin batera.

Hondakinak botatzeagatik salaketa Ergoienan

Udalak Batzarramendi dermioan hozkailua utzi zuenari salaketa jarri dio. Udala eta ergoendarrak "nazkatuta" daude jendeak ibarra hondakinak botatzeko erabiltzen duelako. Hemendik aurrera salaketak jartzen hasiko da

Alfredo Alvaro Igoa ERGOIENA
Azkena hozkailu bat izan da. NA-7100 errepidetik Lizarragara joateko bidegurutzearen ondoan, Batzarramendin, utzi zuten duela aste eta erdi. Dorraoko eta Etxarri Aranazko dermioen arteko mugan, beheko basoan, gurpil pila bota zituzten duela sei hilabete. Gauza bera egin zuten Unanu eta Etxarri Aranazko mugaren ondoan, beheko basoan hori ere, duela urte bat. Lizarragako basoa ere ez da salbuespena eta hondakinak botatzeko ere erabili izan dute. Dorraoko markesina parean sofak botata agertu dira. "Lizarragako portuko bihurgune guztiak hon-



Dorraoko basoan botako gurpilak. KONTZEJUA

dakindegia bihurtuta daude", gaztigatu dute Ergoienako Udaletik. Obra hondakinak, altzariak, plastikoak eta bestelakoak ere agertu dira portuko errepide bazterrean. Lur sail pribatuetan ere bota izan dituzte hondakinak. Zenbait tokitan aspalditik ari dira hondakinak botatzen.
Hondakinak horrela botatzeak bi ondorio ditu. Bata, ingurumena kaltetzea. Bestea, Ergoienako udalak eta ibarreko hiru kontzejuek jasotako isunak. Esaterako, gurpilak bota zituzten batean 3.000 euro inguruko isuna ordaindu behar izan zituen hiru kontzejuetako batek. "Toki era-kunde txiki batendako hori diru asko da", gaztigatu dute Ergoienako Udaletik. Isunaz aparte, hondakinen kudeaketa ere egin behar izaten dute kontzejuek, eta horregatik ere ordaindu behar izaten dute. Esaterako, Dorraoko Kontzejuek beheko basoan gurdikada bat gurpil eta hondakin atera zituen. Oraindik gehiago gelditzen da eta hainbat auzolan egin beharko dituzte. Lizerrarrak ere makina bat auzolan egindakoak dira Lizarragako portuko bazterretan botatakoak

jasotzen. Auzolan horietaz aparte, beraien lur sailetatik hondakinak kentzen ere lana dute zenbait ergoendarrak. Haiek garbiketa egiten lan bikoitza dute, herriarena eta beraiena.
Ergoendarrak eta toki erakundeak egoerarekin "nazkatuta" daude. "Jende gutxi garela baliatzen dute hondakinak hemen botatzeko". Orain arte udalak ez zuen salaketarik jartzen, baina hemendik aurrera jartzea erabaki dugu. Honek ezin du horrela segi", nabarmendu dute. Lehenengo salatua hozkailua utzi zuen pertsona izan da. Udalak Foruzaingoan jarri zuen haren kontrako salaketa, eta hemendik aurrera hala egingen du. "Sakan-darrek jakin dezatela hala jakatuko dugula aurrerantzean".
Ergoienako Udaletik esan dutenez, "hondakinak dohainik uzteko garbiguneak, garbigune mugikorra eta Utzubar EKOgunea ditu Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak. Aukera horiek izanda, ez dugu inolaz ere ulertzen nola jendeak hartu ditzakeen hondakinak eta basoan, portuan edo beste nonbaiten bota".





Etorkizun zirkularra eraikitzen dugu



Asteazkenean azokan egindako bilkura. Gaur, 19:30ean, udaletxe aurrean.

Sunsundeguiako langileek SEPEtik kobratu dute

Inbertitzaileen inguruko informazioak ez dute, eta zuzendaritzak esan du "egoera guztiz larria" dela

ALTSASU

Sunsundeguiako langileei zuzendaritzak aldi baterako enplegu erregulazio espedientea ezarri zien lastailaren 11n eta ilbeltzaren 19ra arte dago indarrean. Ordutik langileen diru sarrera bakarria izan da lastaileko lehen 10 egun horiei dagokiena, azaroaren 7an kobratu zutena. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) Sunsundeguiaren espedientea jaso eta ordainketak egiteko tramitazioa abendura luzatu da. Langileei kobratzeko falta zitzaien lastaileko 20 egunen ordainketa abenduaren 10ean

egin zuen SEPEk. Langileek soldataren %70 jaso dute.

Enpresa batzordeko kideek ez dakite zer moduz doazen inbertitzaile bat lortzeko negoziazioak. Sunsundeguiako zuzendaritzak esan dien bakarria da "egoera guztiz larria" dela. Bestalde, zuzendaritzak espedientearen negoziazioan udako aparteko saria eta oporren %100 bermatu zituen. Orain zuzendaritzak langileei azaldu dienez, "enpresa kudeatzen duen konkurtso administratzailearen lehentasuna soldatak ordaintzea da, baina kutxan ez dago dirurik".

DUELA 25 URTE...



Lakuntzako mapa

Haizea kultur elkarteak sustatu zuen Lakuntzako dermioen mapa egitea, eta egoitzan aurkeztu zuen lakuntzar ugariren aurrean. Ideia sortu zenetik egin arte hiru urte behar izan zituzten. Toponimia mapa osatzeko aurrea toponimoen zerrenda osatu zuten eta, ondoren, haiek mapan kokatzeko lana iritsi zen. Azken hori egiteko maparen egileak mendira buelta bat baino gehiago egin zuten. Langintza horretan Felix Arregik eta Migel Lazkanok lagundu zieten.

"Bruselan harrera ona egin digute"

MIKEL AZKARGORTA BOAL NAFARROAKO TREN SOZIALAREN ALDEKO PLATAFORMA Bruselan tren sozialaren alternatiba azaltzen sei egun eman ditu, Arabako kideekin batera. Landuta duten alternatiba aurkeztu ibili ziren

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Abiadura Handiko Trena (AHT) proiektuaren aurrean tren publiko eta soziala aldarrikatzen dutenen ordezkariak Bruselan izan da. Haraino joan ziren Arabako eta Nafarroako plataformetako ordezkariak, Ekologistak Martxaneko garraio arloko arduraduna eta Tren Publiko, Sozial eta Jasangarri baten aldeko Koordinadorako bi kide.

Noiz egon zineten?

Abenduaren 1etik 6ra. Gonbita jaso genuen. Ekologistak Martxan taldeak *Trena eta Klima* kanpaina martxan dute, eta haren babespean Bruselara joan ginen.

Norekin bildu zineten?

Alde batetik, hainbat talde politikoetako Europarlamentariorekin egon ginen hainbat bileratan: PSOE, PP, Sumar eta EH Bildu. EAJkoarekin biltzen saiatu ginen, baina agenda arazoengatik ez ziguten harrera egin. Bestetik, Europar Batzordeko Klima zuzendari nagusiarekin eta T&E edo Transport and Environmenteko ordezkariarekin. Azken hori fundazio moduko bat da, txostenak prestatu eta hainbat azterketa egiten ditu.

Zer moduzko harrera izan zenuten?

Harrera ona izan genuen. Egun dagoen trenbidea berreskuratzeko gure asmoa ideia ona dela esan ziguten gehienek. Esaten ziguten: "ez dizuete kasurik egiten?" Eta argi esan genien ezetz. Gure proposamena Iruñea eta Gasteiz artean dagoen trenbidea linea aprobetxatzean oinarritzen da. Hura moldatuz eta eraberrituz, bertatik pasa daitezke aldirikoak trenak, merkantziak garraiatzen dituztenak eta abiadura handikoak. Bere garaian Europako kontu batzordeak esandakoa gogoan zuten: "saiaitu behar da dauden lineak aprobetxatzen eta ez makro azpiegiturak egiten, soilik AHT pasatzeko, linea horietatik ezin direlako ez merkantzia ez bestelako trenik



Europar Batzordearen aurrean, eskuinetik lehena Mikel Azkargorta Boal. UTZITAKOA

"GUK ARGI DUGU: IRUÑEA ETA GASTEIZ ARTEKO EGUNGO TRENBIDEA BERRITU ETA BIRMOLDATU"

pasa". Gurea ideia ona zela ikusi zuten.

Talde politikoak ere iritzi horretakoak ziren?

Gehienak bai. PPkoak ere. Esaten ziguten Garraio Ministeriora joan beharra genuela, eta bertatik gure eskakizuna kudeatu.

PSOE-k zer zioen?

Jarrera irekia izan zuten, eta proposamena aztertzeke prest azaldu ziren.

Hemendik aurrera, zer?

Nafarroako eta Arabako plataformak elkartzeko gara, eta, besteak beste, Garraio Ministeriora jotzeko kontaktuak, bideak eta bestelakoak lotzen saiatuko gara. Ideia da Oscar Puentek zuzentzen duen ministeriora jotzea da.

Beraz, balorazioa?

Positiboa da. Ea orain zer gertatzen den. Orain AHT egiteko hirugarren alternatiba hori mahaigaineratu dute (berez,

2018an aurkeztu zuten Hego Euskal Herriko gobernuek). Urdiain eta Altsasu artean pasatzen da Ezkiorekin bat egiteko, merkeagoa delakoan aurkeztu dute. San Pedrotik pasatzea, dena berdina zaie. Ez da logikoa. AHT lotura Ezkioetik edo Gasteiztik egitea, hori dute borroka. Gipuzkoako EAJk Ezkio lotura defendatzen du, Arabakoak Gasteiztik... barne borroka dute. Guk, ordea, argi dugu: Iruñea eta Gasteiz arteko egungo trenbidea berritu eta birmoldatu. Guk nahi duguna da herriak lotzen dituen benetako tren zerbitzu bat izatea. Orain herri asko daude trena ez dena eta gelditzen. Joan dira zerbitzuak kentzen, eta zerbitzurik gabe geratzen ari gara. Estatuko beste toki askotan egin dutena gertatzen ari da: ohiko trenak hiltzen uzten joan dira eta gero AHT jarri. Guk argi dugu dagoen trenbidean hobekuntzak eginez gero trenak 230 km orduko puntako abiaduran ere joan daitezkeela. Gasteiztik Iruñera joateko aldea zortzi minutukoa litzateke, edo txikiagoa. Eta, horretarako, AHT linea berri batek txikizioa sortzen du eta dirutza bideratu behar da, ez da oso logikoa.


Hirigintzari buruzko inkesta Etxarrin

Haren bidez etxarriarren asmoak eta beharrak zein diren ezagutu nahi du. Hirigintza Plana berritzeko asmoa du udalak. Bestetik, Alde Zaharra Lehenatasunez Birgaitzeko Eremu izendapena lortu du

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko Udalak hirigintzari buruzko inkesta zabalduko du. Galdetegia etxeetara banatuko du, *etxarriaranatz.eus* webgunean jarri, udaletxean egonen da eta sare sozialen bidez ere zabalduko du. Maria Saez de Albeniz Bregaña alkateak azaldu duenez, "etxarriarrek dituzten asmoak eta beharrak jakiteko da inkesta. Jakin nahi dugu herriarrek zer etxebizitza premia duten: alokairukoa, autopromozioa, kooperatiba, babestutako etxebizitza..." Argitu duenez, "udalak ez du eraikinik etxebizitzetarako egokitzeko. Baditu lurrak, eta hirigintza planean jasota dago babes ofizialeko etxebizitzak egiteko aukera".

Saez de Albenizek gaineratu duenez, "Nafarroako Gobernuari hirigintza plan berria egitea eskatu diogu. Halako dokumentu bat egitea lauzpabost urteko prozesua da, baina horren aurretik herriaren premiak jakin nahi genituen, zer behar duen. Horrela hirigintza antolamendu berria egin ahal izateko". Egun indarrean dagoen plana 2005ekoa da. Alkateak azaldu duenez, "etxeak egiteko eskaera dezente ditugu, etxebizitza premia dago eta herria pixka bat borobiltzeko, ordenatzeko, nahia ere badu udalak. Dotazio premia ere badago, esaterako, aparkalekuak". Gaineratu duenez, "badago lurra duen eta bere etxea duen jendea, baina lur saila hirigintza planaren barruan ez dago. Aldikako aldaketak egin daitezke, baina nahiago dugu plan berria egitea. Nafarroako Parlamentuak hirigintza plakan sinplifikatzeko pausoa eman du eta horren zain ere bagaude", azaldu du alkateak.

Aldi berean, Etxarri Aranazko Udalak herriko Alde Zaharrerako Lehenatasunezko Birgaitze Eremu izendapena eskuratu du. Zehazki, kultur etxea eta Burundabide kalearen arteko zatiak



Etxarri Aranazko ikuspegia Unanutik. ARTXIBOA

"HIRIGINTZA PLAN BERRIA EGIN AURRETIK ETXARRIARREN PREMIAK JAKIN NAHI DITUGU"

jaso du izendapena. Nafarroako Gobernuak emandako izendapen horren ondorioz, "eraikinak zaharberritzeko lanetarako askoz ere dirulaguntza gehiago lor ditzakete etxejabeek, eta prozedurak azkarragoak dira", argitu du Saez de Albenizek. Alkateak gaztigatu duenez, "etxe zaharrek metro ugariko plantak dituzte eta zaharberritzeko edo zatitzeko edota pisuak egiteko erraztasunik ez da izaten bestela".

Inkesta laburra

Erantzuten duenaren datuak jasotzeaz aparte, zortzi galderek osatzen dute inkesta. Batetik, udalak jakin nahi du hurrengo lau urtetan etxebizitza baten beharra izanen duten etxarriarrek zenbat diren. Premia dutenek zein etxebizitza mota nahi luketen ere zehaztea eskatu du: librea, babestua edo biak. Gai-

nera, logela kopurua zehaztea ere eskertuko du udalak. Aparte, etxebizitza alokatzeko prest zenbat etxarriar egon daitezkeen ere jakin nahi luke. Baita bere etxebizitza eraiki edo duena zaharberritzeko prest daudenak zenbat diren ere. Etxebizitza multzo bat autopromozio moduan eraikitze ko kooperatiba batean parte hartzeko prest egonen liratekeen ere galdetuko du udalak. Azkenik, nork bere iritzia emateko aukera ere eskaini du udalak. Erantzuteko ilbeltzaren 17ra arte izanen da.

Udal kirol azpiegiturretan 133.034 euroko inbertsioak

Zelandi kirolgunean konponketak eta berritze lanak egin eta gimnasiorako materiala erosiko du besteak beste

ALTSASU

Altsasuko Udalak Zelandi kirolgunean hainbat berritze lan egingen dituela jakinarazi du. Alde batetik, kiroldegiko muskulazio aretoko zorua berrituko du. Eta, bestetik, saunako zura ere berrituko du. Zelandik frontoiko teilatua berrituko dute baita hango eta kiroldegiko hainbat ate ere. Lan horiek egiteko 53.100 euro bideratu ditu udalak. Horretaz aparte, Zelandi kiroldegiko muskulazio aretoko materiala erosteko 15.000 euro bideratu ditu udalak. Honakoak erosiko ditu: pisuak altxatzeko bi banku, bi bizikleta, bi air bike, laster egiteko zinta bat eta pisuak jartzeko egitura.

Azkenik, Altsasuko Udalak Burunda pilotalekuko taberna berrituko du. Zehazki, tabernako komunak eta sarbidea birmoldatuko ditu eta sukaldea handitu du. Lan horiek egiteko 64.934 euro bideratu ditu. Lan horiek eginda, tabernari orain ez duen jarduera lizentzia eta irekiera lizentzia emanen dizkio udalak. Horiek eginda, tabernak kudeatzeko deialdia egingen du.

Bazkide gehiago

Udalak Atabo Altsasu SM sozietate publikoaren bidez kudeatzen ditu bere kirol azpiegiturak. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, "bazkide kopuruak nabarmen egin du gora eta Covid-19ak eragindako pandemia aurreko kopuruen pare dago orain. Zehazki, 1.800 per-

tsona baino gehiagok dute abo-namendua". Alkateak gaineratu duenez, "horren ondorioz, oraingoz aurtun udalak ez dio aparteko diru ekarpenik egin behar izan sozietateari".

Oloko gogorazi du pandemia dela eta kirol azpiegiturak itxi behar izan zirela 2020an, ondoren gaitza ez zabaltzeko prebentzio neurriak hartu behar izan ziren eta energia kostuen igoera handia etorri zen ondoren. "Horien guztiek udala behartu zuten sozietate publikoari diru ekarpen bereziak egitera, Atabo Altsasu SMren kontuak orekatzeko". Oloko gaztigatu duenez, aurtengo udal aurrekontuetan sozietatearen kudeaketarako 116.000 euro zedela, eta 109.000 euroko aparteko ekarpena aurreikusia zegoen. Erabili ez den diru hori inbertsioetara bideratu du.

Udal zergak

Udalak jakinarazi du aurtun ezarri dituen zerga tasek heldu den urtean indarrean segituko dutela. Alkateak azaldu duenez, "alde bakarra da kontribuzioaren tasa aurtengoa baino pixka bat txikiagoa izanen dela. Horren arrazoia da Balorazio Txosten berria indarrean sartuko dela, hau da, katastroko balio berriak". Zerga horren bidez udalak heldu den urtean 54.380,15 euro jasoko lituzke, "baina zerga horretatik diru gehiago ez jasotzeko, tasa jaitsi da, aurtun jasotako kopurua bera jasotzeko", argitu du alkateak.

ZURE SEME EDO ALABAREN OROITZAPEN POLIT BAT NAHI DUZU?

SANTA AGEDA BIDEO ETA ARGAZKI ERREPORTAIK

BIDEO ERREPORTAIK
zap@bideoegintza.eus
688 607 296
www.zap.eus
@zap_bideoegintza

JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN ERRESERBA EGITEKO

ARGAZKI ERREPORTAIK
goikobezamirentzu@gmail.com
678 520 791
www.mirentzugoikobezamirentzu.com
@mirentzu_goikobezamirentzu_fotografia

Mirentzu Goikobezamirentzu
FOTOGRAFIA - BARRIOKATZU

Izan giltzarri!



Irati Igoa Sesma Osasunako jokalaria

**Kaixo, Irati Igoa naiz, Osasunako jokalaria, eta
Guaixeko kide izatera animatzen zaituztet.**

Animatu eta izan giltzarri!



**guaixe.eus/
kideak**



Utzuganen egindako aurkezpena. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

"Prozesua pertsonalizatua eta inpartziala da"

EKHIÑE ARRIAGA LATASA INTIAKO LEHEN INSTALAZIO SAILEKOA

Lehen sektoreko etxaldearen erreleboari buruzko jardunaldia hartu zuen Sakanako Garapen Guneak, Utzuganek, lastailaren 28an

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Gobernuaren Intia sozietate publikoak antolatutako jardunaldiak batez ere lehen sektorean familia ondorengorik ez dagoen kasuei zuzenduta zegoen. Jardunaldi hori erretiroetik gertu dauden edo jarduera uzteko asmoa duten pertsonen eta dauden ustiatzearen kudeaketa beren gain hartu nahi duten gazteei zuzenduta zegoen.

Zer da Intiak eskaintzen duena?

Guk Intian hiru zerbitzu eskaintzen ditugu. Haietako bat da fa-

miliaz kanpo pertsonak eta erretiroetik hurbil dauden ustiatzearen jabeekin bitartekaritza egitea. Tutoretza eta jarraipena edo aholkularitza egiten dugu prozesuak irauten duen epe guztian. Eskutik eramaten ditugu bai

"TUTORETZA ETA AHOULKULARITZA EGITEN DUGU PROZESUAK IRAUTEN DUEN EPE GUZTIAN"

ustiatzea utzi behar duena, baita hartu behar duena.

Bitartekari lana egiten duzue?

Bai. Profil, itxaropen edo behar berdinsuak dituzten pertsonak harremanetan jartzen ditugu. Prozesua pertsonalizatua eta inpartziala da. Guk kontutan hartu edo baloratu behar den guztia baino ez dugu jartzen mahai gainean, baina azken negoziazioa beraien ardura da.

Nola da prozesua?

Egiten ari garen aurkezpenekin zerrenda edo datu base bat osatu

nahi dugu, pribatua, guretako. Hartan, alde batetik, daude ustiatzea utzi nahi luketenak eta, bestetik, ustiatze baten ardura hartu nahiko luketen gazteak. Orain zerrenda hori egiteko lanean ari gara. Dena aztertu ondoren, antzeko profilak dituztenak harremanetan jartzen ditugu. Esaterako, behi ustiatzea duena eta behitegia hartu nahi duena.

Zerrendan sartzeko, zer?

Gurekin harremanetan jarri: intiasa.es edo 948 013 040 telefono zenbakiaren bitartez.

Zuekin harremanetan jarrita, zein da ematen duzuen lehen pausoa?

Badaude argi utzi behar diren gauza batzuk. Errelebo hartzen interesa duenari esaten diogu ustiatze gibearen konfiantza irabazi behar duela. Horretarako, hobe da elkarrekin lan egiteko denboraldi bat izatea. Bestalde, ustiatzea hartu nahi duenaren datu guztiak hartuko genituzke: helbidea; abeltzaintza edo nekazaritza gustatzen zaion; beste herri batean bizi nahi duen edo ez, zeren garbi izan dezake herrian segi nahi duela; ustiatzea erosi edo alokatu nahi duen, zeren diru gutxi badu argi izan dezake bakarrik ustiatzea alokatu nahi duela... Horiek jasotzen ditugu aipatutako zerrendan. Horrela sortzen ditugu profilak, ondoren jendea elkartzeko.

Eta profil bateragarriak baleude?

Haiekin elkartuko ginatke, bulegoan edo ustiatzean. Esan bezala, elkarrekin lan egitea gomendatzen dugu, ogibidea ikasteko. Eta konfiantza hartzeko. Bere bizi guztiko ustiatzea ez dute edozeinen eskutan utzi behar. Bien arteko elkar ulermena egon behar du.

Erreleboak arrakasta izateko beste zerbait behar da?

Lehen sektorean lan egin eta herrietan bizi nahi izatea, hori da garrantzitsua. Ez da egun bateko lana, urte osoan egon behar duzu herrian nekazaritza edo abeltzaintza lan egiten.

Halako prozesuetan ohikoak diren errezeloak badaude?

Bai, normalean, konfiantza falta. Negoziazioan arazoak sor daitezke, alokatzeko edo saltzeko garaian. Errelebo prozesuak bukatzeko gauza asko kontuan hartzen ditugu: ustiatzearen azpiegiturak, lizentziak, oso garrantzitsua den lurren jabetza... Beraz, bai, arazoak suerta daitezke.

Gaiztatzeko modukoak?

Jakina. Guk bi aldeak aholkatzen ditugu. Intiak dituen teknikari guztien aholkuak jasotzen dituzte, nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, kontularia... Azken hori oso garrantzitsua da ustiatzearen etorkizun berriaren bideragarritasuna aztertzeko. Ustiatzea bertan behera ez uzteko ahaleginean, teknikarien bidez bakoitzaren asmoak edo beharrak, lehenik, argitu egiten dira.

Intiaren zerbitzu hau berria da?

Duela hiru hilabete hasi ginen. Badakigu sektore zaharkitua dela, belaunaldi aldaketarik ez duena. Nafarroako Gobernuak Lurberri programa martxan jarri du, haren bidez ustiatzearen eta gazteen zerrendak egiteko aukera izanen dugu. Arbizukoa programaren aurkezpena izan zen. Bestalde, nabarmendu nahi nuke errelebo prozesuetan lehen instalazioko laguntzak gaiztatzeko oso garrantzitsuak direla. Oraindik ez dugu 2025eko araudia, baina dugunean eskualdeetara joan gara, gazteei azaltzeko.

Gaztea, zein adin tarte?

Aurten, eta badirudi heldu den urtean ere hiru laguntza mota izanen direla: betiko gazteen dako laguntza, lanaldi erdiko laguntza eta 41 urtetik gorakoendako.

Gobernuak zergatik erreparatu dio erreleboari?

Esan bezala, sektore zaharkitua daukagu, belaunaldi erreleborik ez duena, eta zaila da gazteak lehen sektorea aritzea atzerriko produktu batzuen inportazioagatik, etxaldeetako lan zamarengatik edo lurak eskuratzeko ordaindu beharreko dirutzagatik. Saiatuko gara horri buelta ematen eta ea lehen sektorea eta herriak berpizten ditugun.

BIKAIN GARAJEA



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

EMAKUME PREFERENTEA

9. JARDUNALDIKO EMAITZA

Gazte Berriak - Altsasu 4-4

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Gazte Berriak 22

2 Altsasu 20

HURRENGOA

ABENDUAK 15. IGANDEA

17:45 Altsasu - Idoya (Dantzaleku)

Altsasu, lidergoa berreskuratzera

Altsasuk eta Idoyak atzeratutako partida dute jokoan; ea postua berreskuratzen duen.

GIZON ERREGIONALA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Mendillorri 5-0

Baztan - Etxarri Aranatz 0-3

Lagun Artea - Rotxapea B 2-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 36

2 Etxarri Aranatz 30

5 Lagun Artea 22

HURRENGO JARDUNALDIA

ABENDUAK 14. LARUNBATA

15:45 Etxarri A. - Altsasu (San Donato)

ABENDUAK 15. IGANDEA

19:00 Amaya - Lagun Artea (Amaya)

Altsasuk hutsik egin gabe segitzen du

Altsasuk orain arte ligan jokaturako hamabi jardunaldiak irabazi ditu. Abenduaren 6an erakustaldia egin zuen Mendillorrirek.

Etxarri vs Altsasu, derbirako prest

Etxarri garaipenaren xendari jarraitzen du Baztan mendean hartu eta gero. Bigarrena da sailkapenean eta bihar, larunbata, Altsasu liderra hartuko du. Derbiak ikusmin handia piztu du.

Lagun Artea, bosgarren

Lakuntzarrek bolada onean segitzen dute. Rotxapea mendean hartu eta gero, Amaya arerio zuzenaren kontra aukera polita dute.

ARETO FUTBOLA

Autonomikoan, Arbizu eta Altsasuren derbia

Hirugarren mailan Aralar Mendik Ibararte hartuko du bihar, larunbata, Uhartan. Lehen maila autonomikoan Arbizu liderrak (Mutilberari 1-4 irabazi) sailkapenean hirugarren postura igo den Altsasu (Los Saucesi 5-1 irabazi) hartuko du gaur, ostirala, 19:30ean Arbizun. Partidak ikusmin handia piztu du. Emakumezkoen lehen senior mailan Xotak (Cortesi 3-0 irabazi) Tafaren kontra jokatu du gaur Tafallan, 20:30ean.

Bartzelonan lider segi nahi du Ezkurdiak

PILOTA Ezkurdia-Rezusta dira Binakako liderrak, txapelketa hasiera ikaragarria eginda. Bartzelonan Altuna-Aranguren dituzte aurkari. Elordi-Zabaletak lehen puntua lortu zuten eta bihar, Labriten, oraindik punturik ez duten Etxeberria-Martija dituzte zain

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Joseba Ezkurdia ez zen fin ibili azkeneko Buruz Burukoan eta Lau eta Erdian. Ongi entrenatu, baina kantxan bere maila emateko arazoak zituen arbizuarrak. Baina bere errautsetatik altxatu, eta Binakako Txapelketa modu ezin ikusgarriagoan hasi du, Rezusta sendoaren laguntzarekin. Jokaturako bi jardunaldietan Altuna-Aranguren eta Peio Etxeberria garaitu dituzte, eta sailkapeneko lider dira. Hirugarren jardunaldian, Elordi-Zabaletaren kontra 3-22 erori eta jota eta min-duta dauden Altuna eta Arangurenen kontra jokatu dute, non eta Vall d'Hebron. Bartzelonan bolada onean jarraitu eta lidergoari eustea da Ezkurdia-Rezustaren asmoa. Arbizuarra bueltan da, sentsazioak onak dira. Rezustarekin batera, txapelketan kontuan hartzeko bikote sendoa direla erakutsi diote katedrari. Ea beteranoen mailak hala segitzen duen.



Ezkurdia eta Rezusta ikusgarri ari dira.

Zabaleta vs Martija, Labriten

Elordik eta Zabaletak lehen jardunaldiko zalantza guztiak uxatu zituzten -22-12 galdu zuten Ezkurdia-Rezustaren kontra-, eta Altuna-Aranguren 3 tantotan utzi eta gero, txapelketa irabaz-

teko faboritoen zerrendan dau dela erakutsi zuten 2023ko txapeladunek Donostiako Atano III. ean. Zabaletaren jotzea ikaragarria izan zen, eta sasoi betean dagoela erakutsi du atzelari etxarrendarrak. Sailkapenean hirugarrenak dira, eta larunbatean, Labriten, punturik gabe sailkapenaren zuloan dauden Peio Etxeberria eta Martija izango dituzte aurkari.

Etxeberriak eta Martijak ez dute gaizki jokatu, baina lehen jardunaldian Altunak eta Arangurenak mendean hartu zituzten eta, bigarrenetan, Ezkurdia-Rezustaren kontra ongi hasi ziren, baina Ezkurdiak aginte makila hartu, eta ezer gutxi egin ahal zuten. Labriten partida zaila dute aurretik; bi atzelari eta jotzaile arakildarren arteko borrokak ikusmin handia piztu du. Bestalde, gaur Jaka-Imazek Arto-la-Mariezkurrena dituzte aurkari Urretxun, eta Laso-Iztuetak Peña II.a-Albisu, Amorebietan.

LABURREAN

Olatz Navarro, Pamplona Bulls-en



Powerchair Football izena du gurpildun aulkian futbolera jokatzen duen kirol inklusibo berriak. Nafarroara iritsi da, eta Olatz Navarro etxarriarra da Iruñean sortu berri den Pamplona Bulls taldeko jokalarietako bat. Aulki berezi batekin jokatzen dute, eta kirola egiteaz eta ongi pasatzeaz gain, jende berria ezagutzeko primerako aukera dute.

Sakanako Xake Txapelketako prestaketak



Sakanako XXIV. Xake Txapelketa abenduaren 21ean jokatu da, 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko Larrañeta elkartearen. Proba, aldi berean, Nafarroako 1900 ELO puntutik beherako txapelketa izango da. Egunean bertan emango da izena, 9:30etik aurrera. Txapelketa azkarra da, 15 minutuko zortzi jardunaldi edo partidatan erabakiko dena.

Urdiaingo Ziklo-krosa prestatzen



Burunda Txirrindularitza taldeak antolatuta, abenduaren 22an jokatu da V. Urdiaingo Ziklo-krosa-V. Benigno Mendia Memoriala. 9:15ean mastersak abiatuko dira, 10:15ean kadeteak, 11:15ean eskolak, 12:00etan jubenilak eta 13:00etan eliteak eta 23 urtez azpikoak. Egunotan ibilbidea prestatzeko lanetan murgilduta daude Burundakoak.



CBASK

CBASK-en aitortza Jon Otermini

SASKIBALOIA Bigarren maila autonomikoko CBASK Narum Fisioterapiak bere taldekide Jon Otermini aitortza egin zion. Gazteak saskibaloia utzi behar izan du lesio batengatik, eta taldekideek bere esker ona azaldu zioten. Liceo Monjardinen kontra 56-80 galdu zuen CBASK-ek, ligan zazpigarren da, eta bihar Noain liderra hartuko du Zelandin, 17:50ean.



FS.ALTSASU

Futsal 24 orduak

ARETO FUTBOLA Lehen maila autonomikoko Futsal Altsasuk 24 orduko futsal txapelketa antolatu du Zelandin abenduaren 27tik 28ra. Izena emateko: 649019833.



**EGUBERRIETAKO
GEHIGARRIA
2024**
 **guaixe**
astekaria

"SDOZEEn beti lanean gaudе herritarrei ongi egiteko, eta hor egongo gara aurrerantzean ere"

Lehendakaria noiztik?

Lehendakari gisa aurreten hasi naiz, martxoan. SDOZEren funtzionamendua asanblada da; talde modu legal batean antolatu behar gara, eta kargu aldaketa tokatzen zen. Dendan malgutasun handiagoa daukagu bileretara joateko, ordezkari izateko eta abar, eta laguntzea ere gustatzen zaigu. Lehendakari sartu nintzen. Ez zegoen aukera asko ere, jendea lanez lepo dago. Azkenean, sartu nintzen eta momentuz ongi; saiatzen naiz.

Noiztik zara elkarteke kide?

Pixka bat anekdotikoa izan zen. Nik kanpoan lan egiten nuen eta 2018an Lakuntzara lanera etorri nintzen eta udalean ere zinegotzi nengoen, 2019tik. Ondoren, pandemiarako Next Generation fondoak sortu ziren, eta zinegotzi bezala bileretara joaten hasi nintzen eta elkartearekin kontaktua hartu nuen eta sartzeko gonbidapena luzatu zidaten, eta sartu ginen. Oso esperientzia polita izan da. Iruditzen zait bide luzea dagoela egiteke. Sartu nintzenetik buru-belarri hasi nintzen, eta orain, esandakoa, lehendakari.

Elkarteke lehendakari gisa, zer egiteko dituzu?

Funtzionamendua asanblearioa da, eta orduan bazkideen aportazioa, gutxi gorabehera, antzekoa da. Malgutasunaren aldetik nire lana ordezkari lanak egitea da: bileretara joan, beste taldekoei zer hitz egin den jakinarazi, zer erabaki hartu diren, Sakanako Mankomunitatearekin eta udalekin bildu... Ordezkaritza lanak arlo publiko eta pribatuan; gehienak publikoak izaten dira. Gero beste gauza batzuk daude ere: sari banaketak, desfileak



SERGIO GOIKOETXEA
SAKANAKO DENDARIEN
OSTALARIEN ETA
ZERBITZUEN
ELKARTEKO
LEHENDAKARIA

eta horrelako gauzetan han egon behar naizela.

Noiz sortu zen Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen Elkartea?

2015ean; duela bederatzi urte. Hasieratik lana jarraitu dut, barrutik ez bazen ere. Txingurriak bezala ibiltzen gara ikusten ez diren lanak egiten, eta horietako asko eguerdian izaten dira, jendea bazkaltzen dagoenean. Hortaz, denda itxita dagoenean. Nik uste garai onak direla komertzio eta dendetarako. Pandemia ondoren bizimodua eta gauzak ikusteko modua aldatu dira, eta erreakzio handi bat daukagu online eta digitalizazioarekin.

Aurretik Altsasuko Dendarien Elkartea sortu zen, ezta?

Altsasukoak urte gehiago ditu, bai. Normala da; gehiena han bilduta dago. Besteak nolabait periferia gara, eta horrela izatea

nahi dugu; esan nahi dut, nonbait kokatu behar da hiriburua eta nik nahiago dut Lakuntzako jendeak ez badu han aurkitzen Altsasura gerturatzea, eta ez Iruñera. Arabara edo Gipuzkoara aldera joaten direnak Altsasun gelditzea nahiago dut. Helburu bat hori da, saiatzea ahal dena herrian, eta, bestela, eskualdean.

Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

Sortu zenetik helburu nagusi berdina duela esango nuke. Lehenengoa da tokiko edo gertuko komertzioa, ostalaritza, dendak eta zerbitzuak indartu eta babestea. Beste helburu bat da jendeari ezagutzera ematea; azalarazi zer lan egiten dugun. Herritarrek bakarrik ikusten dute dendan gaudenean, baina atzetik lan asko egiten da, eta horren zati bat bideratuta dago, nolabait, herritarri gure lanaren parte bat helaraztera. Esaterako, bonoa, sariak... Guretako aukera bat da, baina beraien dako ere bai; herritarrei itzuli haiek ematen digutena. Helburu garrantzitsuenetarikoa bat da eskualdearen dinamizazioa. Eta, nire ustez garrantzitsuenak, sentsibilizazioa. Egutero entzuten ditugu ekonomia zirkularra bezalako kontzeptuak, hondakinen inguruko gauzak, tokian erosi eta kontsumitzeak dituen abantailak eta abar. Horren gainean egon behar gara momentuoro, gauza asko esaten ditugu, baina gero errealitatez eramatea askotan zaila izaten da eta guk horretan ardura handia dugu. Ezin dugu ardura osoa kontsumitzailearengan utzi. Erraztu behar dizkiogu gauzak, aukerak eman behar dizkiegu. Horrela esanda erraza da, baina erronka handia da. Beste helburu bat ere formakuntza da.

Nolako osasuna dauka momentu honetan merkataritzak eta ostalaritzak Sakanan? Izan ere, jendea jubilatuta da eta harekin negozioa, beste batzuk traspasatzeko aukera izan dute...

Azkeneko bileretan traspasoen gaia baloratu da. Traspasoak badauka arazo bat eta da negozioak batzuetan etxe propioan egoten direla, eta zailtasun bat izan daiteke. Baina beste modu batera traspasatu daiteke negozioa. Aukera bat baldin badaugu traspasatzeko erraztasunak ematen dira. Negozio berriak sortzeko ere erraztasunak badaude. Guk berria sortu genuen 2016an eta antolakuntza xume batekin eta gauzak ongi eginda laguntzak egon badaude. Hortik aurrera, Sakana mailan Altsasua adibide bezala hartuta, osasuna ez da oso-oso ona. Orain dela zenbait aste prentsan txosten batzuk publikatu ziren, eta

"Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartean sartu nintzenetik burubelarri ari naiz; orain lehendakari naiz"

"Pandemiaren ondoren bizimodua aldatu da, eta erronka handi bat daukagu digitalizazioarekin"

"Helburua da ahal dena herrian lortzea, eta, bestela eskualdean; herrietan ez badago, nahiago dugu Altsasura joatea, eta ez Iruñera"

"SDOZEren helburu garrantzitsuenak eskualdearen dinamizazioa eta sentsibilizazioa dira"



azken aldi honetan hogei negozio baino gehiago itxi zirela esaten zuen. Hori ez da notizia ona. Bakoitzaren zergatia aztertu beharko genuke, baina datu bezala ez da ona. Gero historikoki komertzioen ordutegiak eta lanaldiak ez dira batere errazak; ez komertzio, ez ostalaritza, ez zerbitzue-na. Noizbait jarri beharko gara horri buruz hitz egiten ere: nola sentsibilizatu jendea ordutegi berrietara. Batez ere ostalaritzan pausuak ematen ari dira, arratsalde osoa irekita kafe bat emateko... Kontziliatu behar dugu bizitza. Bakoitzak badu bere ordutegien antolakuntza, eta askotan elkartzen garenean horretaz hitz egiten dugu: nola antolatu bizitza eta lana denda hainbeste ordu irekita dugunean. Noiz hartuko dugu erronka hori? Ez dakit, baina zerbait egin beharra dago.

Komertzioen sektorea indartzeko plangintza indartsu batean sartuta zaudete. Zertan datza?

Urtetako gauza bat da. 2018an hasi ziren elkartarekin eta Sakanako Mankomunitatearen barruan dauden eragile pila batekin diagnostiko bat egiten, eta hortik aurrera egiteko gauza batzuk baloratu ziren. Plana bukatu zenean, horri aurre egiteko finantziatorik ez zegoen. Pandemiaren ondoren Next Generation fondoekin berriro planteatu zen aurretik eginda zegoen plangintza hori, eta sorpresa edo ez finantzaketa lortu zen eta duela urte bat gutxi gorabehera enteratu ginen partida hori zegoela. Aurreko diagnostia eguneratu genuen, bilera pila bat genituen; Sakanako Mankomunitatearekin, Garapen

Agentziarekin, Cederna Garalurrekin, gure artean, tailerrak egin genituen, ideiak bota, zuzendu... Hortik aurrera Cederna Garalurrek hartu zuen proiektuaren gidaritza eta zenbait proiektu aurrera eramaten joan dira.

Herritarrek zertan nabaritu dute?

Sakanan bizi eta lan leloa hartuta sozialki eta ekonomikoki moldatu. Altsasun adibidez pantaila handi bat egongo da, eskapareak margotuta, zebrabideak, WIFI zonaldeak ere jarriko dira, eta barrura begira komertzioetan eraldaketak egingo dira. Lan handia egiten ari da Sakanako Gida eta aplikazioan, baita online saltzeko Top-Topa plataforman ere. Dendetarako programa batzuk ere sortu dira. Sekulako lana da. Sentsibilizazioa eta formakuntza ere egongo dira, orain horretan ari gara zenbait gauza prestatzen. Adibidez, pantaila digital horietan aterako diren mezuak prestatzen ari gara, herrietako sarreretan jarri diren seinaleak... Hondakinen inguruan Sakanako Mankomunitateak jarraitzen duen bidea jarraitu dugu: zirkularra, birziklatzea eta sozialki nola nahi dugun gure Sakana. Hortik aurrera oso garrantzitsua da eta plan estrategikoan ere jasotzen da zaintza. Zaintzen inguruan ardura eta erronka hartu dugu dendariok eta komertziantek batez ere gure helduak nola etortzen diren gure dendetara, gazteak baino gehiago seguraski, eta zer ardura daukagun ahal dugun heinean pertsona horiek laguntzen. Ni dendaria naizen aldetik nabaritzen da zer nolako laguntza eske etortzen diren;

"Noizbait jarri beharko gara horretaz hitz egiten ere: nola sentsibilizatu jendea ordutegi berrietara"

"Zaintzen inguruan ardura eta erronka hartu dugu dendariok, batez ere gure helduak nola eta zertarako etortzen diren gure dendetara"

"Talde lanarekin orain arte bezala jarraituko dugu; bakarkako lanarekin ez da ezer ateratzen, baita eskualdeko agenteekin elkarlanean ere"

esaterako, bonbilla bat aldatzea ere zaintza bezala har dezakegu. Zenbait pertsonen ez daukate zeinek egin hori, eta guri tokatzen zaigu. Esaten dut bonbilla nik ferreteria bat dudalako, baina izan daiteke arropa eta edozein produktu edo zerbitzu. Gauza horiek ere sartzen dira plan estrategikoan. Badirudi ez daukala konexiorik baina dena lotuta dago. Kalean denbora asko pasatzen dugu, eta gauza horiek ikusten ditugu; behaketa lan hori oso garrantzitsua da

Plan estrategikoa 2027 artekoa da. Zein da SDOZeren egin beharra?

Nik uste bide beretik jarraitu nahi dugu. Orain Next Generation fondoak erabili ditugu, eta orain beste fondo batzuk beharko ditugu beste plangintzak aurrera eraman ahal izateko. Nafarroako komertzioen elkarteko kide gara eta Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ere jasotzen ditugu, baina horrek ez du ematen. Finantzaketa bilatu eta gure aldetik aportazioa egiten jarraituko dugu. Talde lana orain arte bezala egiten jarraituko dugu. Bestela, bakarkako lanarekin ez da ezer ateratzen. Eskualde mailan, agente sozial guztiekin batera, bestela zail samar izango da ere. Metodologia berarekin jarraituko dugu.

2025 ate joka dago. Nola heldu da?

Komertzioari begira azken egunetan egin ditugu zenbait bilera. Komertzioak dependentzia zuzena dauka industriarekin, lehen esan dugu komertzioa ez zegoela oso ongi, eta industria ere momentu honetan ez dago bere onenean. Eguneroko notiziak ez dira onak. Zer nahiko genukeen gauza bat da, eta nola moldatu errealtate sozial horretara... horretan gaude. Beti egon behar gara pentsatzen nola egin egokitze hori. 2025ean gure ekintzekin jarraituko dugu, bonoak eta abar, eta Altsasun gabonetarako gauzak prestatu ditugu, esaterako, abenduaren 6an argien piztea izan zen eta 14an ere ekimenak antolatu dituzte. Aurrekoetan ongi ateratzen direnak errepikatzen ditugu.

Gabonak erostetak egiteko garaia da, kontsumitzeko garai garrantzitsua. Zer mezu zabalduko zenuke?

Lehenengo meza soziala da: Gabonak bakoitzak bere fede, erlijio eta bere moduan, familian egoteko egunak dira. Gauzak pentsatzeko eta disfrutatzeko. Dendariak garen aldetik, kontsumitzeko modu kapitalista ez da gehien gustatzen zaigun eredu, baina dendak gara eta hortik bizi gara, orduan, ahal den heinean tokiko gauzak erosi, bertan gastatu eta bertan kontsumitu eta argi eduki herrian eta zonaldean eragina duela, ekonomia zirkularra sortzen dela, eta lanpostuak mantentzen eta sortzen direla. Niri gabonak gustatzen zaizkit bereziki familian egoteko momentuak direlako. Jendeak ikusi behar du Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuak beti lanean gaudela herritarrei ongi egiteko eta hor egongo garela aurrerantzean ere.

Betaurrekoak



**SAKANA OPTIKAKO
XABI ETA
AINHOAREN
GOMENDIOAK**

Jakin badakigunez gustuen gainean ez dagoela ezer idatzita, eguzkitako betaurrekoen modelo sorta bat eskaintzen dizugu, eta horien artean zure nortasunari gehien egokitzen zaion estiloa aurkituko duzu. Estilismo modernoena erakutsi behar dituzu. Horregatik, betaurrekoen aukeraketa hau % 100ean sartuko da zurekin.



Asko gustatzen bazaizu nabarmentzea, eta zure nortasunak atentzioa ematen badu joaten zaren lekura zoazela. Zure jarraitarekin bat datozen betaurrekoak aukeratu behar dituzu: **oversize, cat eye modeloak**, beti deigarriak eta edozein unetan primeran konbinatuko dituztenak.



Modelo arriskutsuak, forma obalatuak edo geometrikoak eta kolore paleta oso bat zure *outfit*-arekin jolasteko.



Vintage zalea, 60ko eta 70eko moda maite duzu... Zure definizio perfektua eman badugu, hemen aurkituko dituzu zure estilora gehien egokitzen diren eguzkitako betaurrekoak. Nostalgia gogorarazten duten forma buhameak eta tonuak.



Zure burua arima asketzat hartzen baduzu eta bizitza une bakoitzean sentitzen duzun bezala bizi baduzu, bizitza ikusteko duzun moduari atxikitzen zaion estilo bat aurkitu du. **Estilo bizikoak, estanpatu originalak eta zure aldarte**a islatzen duten osagarriak.

Eguberrietako postreak



**PORTUKOREN
GOMENDIOAK**

Txokolatzeko eta almendrazko turroiak, mantekatuak, trufak, ijito besoak, milorria, pantxineta, goxua, nata, krema edo txokolatzeko bonbak, petit suis-ak, profiterolak eta stollenak (ogi gozo alemana) ditugu. Urte hasierari begira, urtarilaren 5ean eta 6an, erregeetako rosakoak (aurretik eskatu).

Sakanaoptika
optometria • audiometria • kontaktoak

Eguberri hauetan eskatu osasuna

948 563 124 • San Juan kalea, 40 • Altsasu • www.optikasakana.com

Uste berri on!
Enkargua aurretik egin

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763

LOTERIAS IMAZ

1 ZBK. LOTERIA ADMINISTRAZIOA
TEL.: 948 563 466
31800 ALTSASU
loteriasimaz@gmail.com

Jai zoriontsuak

ADEn GABONETAKO PROGRAMA

Abenduak 6

18:00 Gabonetako argien piztea eta txokolatada Bergera Gozo-dendarekin Foru plazan. Doakoa!

Abenduak 14

17:30 Gabonetako moto-kalejira Altsasuko TxokoGas taldearekin

Irteera: Geltokiko auzoa

Amaiera: Foru plazan 19:00etan

19:30 Gabonetako saskiak Sakanako Dendari Ostalari eta Zerbitzuen Elkartetik.

20:00 Poteo herrikoia Gautxori tabernan

13 Udaberri Loredenda

Akeita kafetegia

Allianz aseguruak

Arkatx Liburu-denda

Arkupe altzariak

Asensio Moda

Bengoetxea oinetakoak

Cristina janari-denda

Deportes Lezea kirolak

Ekin Moda

Gautxori Taberna

Gertu Sakana

Hiruon harategia

Iker Kirolak

Inmobiliaria Agurain

Iulene

Izara Cortina-Stor

Joselen Moda

Katuka

Bergera gozo-denda

ML Moda gizonezkoa

ML Moda emakumezkoa

Next Movil

Larka

Lasa Kirolak

Liburunda

Lorea loredenda eta belardenda

Pinpilinpauxa

Ramos elektrizitatea

Santa Cruz altzariak

Santa Cruz sukaldeak

Sakana optika

Sarabe belardenda

Sare oinetakoak

Scooby Txakurren ile-apainketa

Sorkunde harategia

Tu Tienda Especial

Xagu Informatika

Txartel

Txikitxo

Eguberrietako postreak



AMAYAREN GOMENDIOAK

Eguberrietarako gure eskaintza berezian zapore ezberdinetako tartak daude eta errege egunerako rosakoak ere, aurretik eskatuta. Abenduaren 24rako eta 31rako ogi berezien enkarguak jasoko dira. Gainontzeko produktuak ere salgai gure Sakanako denda ezberdinetan.

Txistorra biribilkiak



FLORES HESTEKIAKEN GOMENDIOAK

Txistor gozo eta miñaz gain, txorizoan ere, bi eratara dugu aukera. Txorizoa izan daiteke, bai hezea, bai lehorra. Azken hau gordinik jatekoa da. Gure produktuek ez dute inongo alergenorik. Edozeinek lasai jan ditzake, beldurrik gabe.

Osagaiak:

- Txistorra erdia
- 50 g irin
- 500 ml esne
- Brisa pasta

1. Txistorraren azala kendu eta barrukoa txikitu.
2. Zartagin batean olio jarri eta txistorraren barnekoa frijitu.
3. Askatu duen koipe gehiena kendu eta gelditzen denean irina gehitu. Egina dagoenean, pixkanaka esnea gehitu.
4. 10-12 minutuz bexamela kozinatu. Erretilu batera atera eta hozten utzi.
5. Brisa pasta bitan zatitu. Bexamela 12 zatitan banatu eta zati bakoitza brisa pastaren gainean jarri eta biribilkiak egin.
6. Labearen erretilu batean laberako papera jarri eta gainean biribilkiak jarri.
7. 200°C-tan egin 6-7 minutuz. Gustukoen duzun saltsarekin zerbitzatu.



Eskuragarri
abenduaren
19etik aurrera
HANDIA
Esne gaina / Crema
ERTAINA
Esne gaina / Crema / Trufa
TXIKIA
Esne gaina / Crema / Trufa
BEGANOA eta
GLUTEN GABE ere bai



ALTSASU
678 323 403
Iruña Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
San Juan Kalea, 50
948 562 185
Otadiko Kristo Dena, 19
UHARTE ARAKIL
691 83 41 36
Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ
Pastas, 33
ETXARRI ARANATZ
948 461 660
Kale Nagusia, 4
ARAIA
945 314 572
Andoni Urrestarazu, 3
IRUN
655 409 708
Zabialre, 4



Behi azpizun broxeta japoniar espeziekin

Osagaiak:

300 g behi azpizun
100 g hirugiharra
Tipula more bat
Shichimi togarashi (japoniar espezia)
Wasabi maionesa

1. Azpizuna zati handietan moztu eta hirugiharrez inguratu.
2. Azpizun zatiak broxeta makilean sartu eta tipula zatiekin txandakatu.
3. Gatza eta shichimi togarashi japoniar espeziarekin inguratu.
4. Plantxa 10 minutuz berotu eta oso beroa dagoenean, broxeta gorritzen jarri, 5 minutuz.
5. Zerbitzatu berehala broxeta wasabi maionesarekin lagunduta.



MARIÑELETXEREN GOMENDIOAK

Aurretik eskatuta, azpizuna, antxumea eta txerrikumea. Etxeko fritoak, tripakiak, pottoka hanburgesak eta oilasko izterrekin edo haragiarekin edo ziazerba eta txanpiñoiekin egindako etxeko lasaia.

Txerri txuletak bermut saltsarekin



JAVIER LOPEZ DE GOIKOETXEAREN GOMENDIOAK

Arkumeak, txerrikumeak, txuletak eta solomilloa. Enkarguz aldiz, arkume eta txerrikumea tenperatu baxuan errea, zuzenean mahaira eramateko.

Osagaiak:

8 txerri txuleta
125 g gurin
Edalontzi bat bermut
125 g esnegain likidoa
Irina

1. Zartagin batean gurina desegin eta olio gehitu. Txuletak ongi frijitu eta gorde.
2. Behin zartagitik kanpo daudela, gatza eta pipermina bota txuleten gainean.
3. Zartagin horretan bertan bermuta egosi, erdira gutxitzen den arte.
4. Sutik kendu gabe, esnegaina bertan nahastu eta irin koilarakada bat gehitu.
5. Minutu batzuek irakiten mantendu, bitartean egurrezko koilara batekin nahasi.
6. Saltsa loditzen denean, txuletak eta askatu duen saltsa gehitu eta irakiten jarri, haragia biguntzen den arte.





Euskarazko katalogoa



19. ARDIA
 EGILEA: BLANCA LACASA
 ILUSTRATZAILEA: JORGE MARTIN
 NUBE OCHO
 11-20 EURO
 0-5 URTE

Gauero-gauero ardiak kontatzen ditu Ofelia andereak lo hartu ahal izateko. 1, 2, 3, 4 ardi... eta hala 18. ardira iritsi arte. Momentu hartan loak hartzen du beti. 19. ardia, orde, irteteko gogoz geratzen da gauero. Beraz, plan andana martxan jartzea erabaki du, ez da besoak gurutzatuta geratuko. Zer egin dezakete berak eta bere kide diren 20., 21. edo 75. ardiak hesiaren gainetik jauzi egin eta Ofelia andereari loak hartzen laguntzeko?



JOSTAILUAK ETA JOKOAK
 KAWAII - ZILARREZKO DISTIRA
 SUSAETA
 6-9 URTE
 10 EURO BAINO GUTXIAGO

Ezagutu kawaii mundua! Jaki irribarretsua, objektu alaiak eta animalia maitagarriak zain dituzu, liburu honetako jolas eta jarduerak dibertigarriak egiteko. Eranskailu distiratsu politak ditu, eta pieza erauzgarriak.



BI AHIZPA
 EGILEA: ISABELLE SIVAN
 ILUSTRATZAILEA: BRUNO DUHAMEL
 HARRIET
 10 URTETIK AURRERA
 21-30 EURO

Lise eta Camille bi ahizpa dira. Bata kementsua eta kirolaria da, finantzetan lan egiten du eta futbola maite du. Bestea, hippyagoa, irakaslea da eta musika-tresnen bilduma egiten du. Bitxia bada ere, hain ezberdinak izan arren, etxe berean bizi dira, bitan banatuta. Baina, zenbat denbora gehiago? Jabeak eraikina saltzea erabakitzen duenean, elkarrekin erosteko asmoa dute. Baina, lortuko al dute ados jartzea?




DENBORAREN ZUBIA
 EREIN
 14 URTETIK AURRERA
 11-20 EURO

Orizarreko herritarrei ia oharkabean iritsi zitzaizen gerra. Arrantzaile herri hartako gizon-emakumeek ahal zutena egin zuten egoera berrira egokitzeko. Gerra, nolabehi ere, atrezzo hutsa da kontakizunotan, denbora eta espazio bat ematen die *Denboraren zubia* liburuko zazpi ipuinei eta istorioetako protagonistei. Gerran gertatu ohi denez, 1936koan ere, Orizar herri txikian herritar batzuk zain zeuden soldaduak Nafarroa aldetik noiz iritsiko eta beste batzuk, berriz, horren beldurrez. Batzuk etxean geratu ziren, beste batzuek ihes egin zuten.



KAXETAKO ANDER MUÑOZEN GOMENDIOAK




Zu hor eta ni hemen
 Expiraren beste altxor bat. Istorioa gogorra da baina polita. Palestinaren egoera salatzen da, itxaropena ekartzen duena. Irudiek indarra dute.



AHT Arrisku handiko tren
 Iaz arrakasta itzela izan zuten liburuak. Irakurleak aukeratzeko du istorioa nondik nora doan.



L'Arratien
 Toti Martinez de Lezearen garai honetako azkena. Apostu segurua. Kostaldeko herri batean kokatzen da.



Dream runners
 Mahai jolasa familian elkarrekin aritzeko. Arratsalde hotz hauetan ongi pasatzeko unea.




Sakanako katalogoa



Garenaren Arrazoa
Aingura



Bidean aurrera
Ane Martija



Sutan
Beietz



Bulkada



Galdera Guztiak abestia
Ganibet



Zauriekin
Haizkan




Irati eta Ekhiñe Lumberras
abeslariak




Mataperros taldea



Amerikaren arrakalak
Mikel Reparaz




Barranca-Burunda (2024)
Rafael Carasatorre



Bernoa
Juan Luis Larraza



Burunda. Historia eta toponimia
Juan Luis Erdozia



Sakanako baselizak XXI. mendean
Juan Luis Erdozia




Touré. Zenbaki gorriak
Jon Arretxe




Ai, hau pena nik!
Jose Luis Erdozia



Toure detektibea



Momotxorroak. Kaos baten istorioa
Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldea



Ergonekoapala
Iñaki Apalategi



Eskudoinuak
Juanjo Mintegi





DERRY TABERNA JATETXEAREN GOMENDIOAK

Goiz goizetik gauera arteko eskaintza paregabea Etxarriko erdigunean kokatuta. Etxeko pintxo goxoak, kafe goxo goxoak eta giro paregabea. Eguneko eta asteburuko menua aukeran baita ogitarteko, plater konbinatu eta pizza eskaintza paregabea.



KAIXO TABERNA JATETXEAREN GOMENDIOAK

Altsasun, goizetik kafe goxoa edo gustuko edaria aukeran, etxeko tarta eta bizkotxo egin berriein dastatzeko. Eguerdi partean eguneko menua eta karta aukeran. Eta bestela, pintxoak, ogitartekoak, errazioak, pizzak aukeran. Abenduaren 24tik urtarillaren 2ra itxi egingo dugu, erregetarako prest izango gara.

Jengibre galleten kafea



Osagaiak:

2 koilarakada azukre beltz
1/2 koilarakada intxaur muskatu
hauts
600 ml esne
1/2 koilarakada banilla estraktu
1/2 koilarakada jengibre hauts
1/2 koilarakada kanela
70 ml kafe egin berri
Esnegain likidoa

1. Espezia guztiak esne eta banilla estraktuarekin nahastu.
2. Kazola batean berotzen jarri, denbora guztian nahasten.
3. Kafea egin eta katiluetan banatu.
4. Aurretik egindako nahasketa kafearekin nahastu.
5. Esnegaina irabiatsu, altxa arte.
6. Kafearen gainetik bota eta jengibre galleta batzuekin zerbitzatu.



TXALAPARTA TABERNAREN GOMENDIOAK

Herriko giro paregabea goizetik gauera arte, Zumalakarregi plazako bihotzean. Lagunarteko giroa, egunerokoa. Erreferentziatzeko taberna Altsasun. Pintxoak gustuko edariarekin batera dastatzeko aukera.



XAPATERO TABERNAREN GOMENDIOAK

Etxarriko plazaren erdian kokatuta dago taberna, plazan bertan estalitako terraza bikainarekin. Goiz goizetik zabalik, lagunarteko giro paregabea. Etxeko kroketak eta pintxoak aukeran. Gaueko giro paregabea aurkituko duzu bertan jai egun hauetan.

Derry Taberna
ETXARRI ARANATZ
SAOR DOIRE
Urte berri on!
Kale Nagusia, 8
Etxarri-Aranatz
948 461 703

Kaixo
Kafetegia - Jatetxea
Gozatu gurean!
Pintxoak, bazkariak, afariak eta ogitartekoak
Garcia Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restaurantekaixo.com

Txalaparta
Urte berri on!
Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

xapatero
taberna
Urte berri on!
948 460 162 - Etxarri Aranatz

EguRRE
Kalitatezko egurra eta pelleta
ETXEKO ATERAINO
662 11 77 45



Olentzero eta Maridomingi maiteak:







guaixe
fundazioa

Urte berri on!

Izan giltzarri!

Maridomingi eta Olentzero
Ikaztegieta kalea, 1
Sakana



Igorlea:



Asier Estarriaga hasierako itzulietan buruan, atzean Xabier Sanchez, Juanjo Igarzabal, Mikel Astiz eta Ekhi Congil dituela.

Zubeztia lasterketa hotz eta bustian, txapelak Idiazabal eta Gasteizera

ATLETISMOA XLIII. Zubeztia Elkartea Lasterketa esprintean erabaki zen, eta Xabier Sanchez Asier Estarriagari gailendu zitzaion. Emakumezkoetan Diana Vecillasek hartu zion aurrea Izaskun Beunzari

Maider Betelu Ganboa ALTSASU Abenduak 8, korrikalarien hitzordu handia Altsasun. Aurten XLIII. Zubeztia Elkartea Lasterketa-III. Candi Arnanz Memoriala zegoen jokoan. Ez zen giro, baina euriari, hotzari eta hai-zeari aurre eginez, izena emanda zeuden 122 korrikalarietatik 85ek hartu zuten irteera, horietatik 20 emakumezko, Altsasuko herri gunean prestatutako zirkuituari lau itzuli eginez 10 km osatzeko. Eguraldi txarrari aurpegi ona jarritz, maila handiko lasterketa izan zen, giro onekoa eta animatua.

Korrikalariak bizi-bizi atera ziren, 400 metrotan sari berezi bat baitzegoen jokoan, Iñigo Lopez gasteiztarrek lortu zuena. Erritmo azkarrean jarraitu zuen probak, eta taldetxo bat jarri zen aurretik, korrikalari azkarrenekin. Lasterketa bukatzeko

kilometro baten faltan hasi ziren erasoak, eta, azkenean, garaipena Xabier Sanchez idiazabaldarraren eta Asier Estarriaga etxarriarraren arteko esprintak erabaki zuen. Sanchez izan zen txapelduna (32:46), Asier Estarriagaren (32:47) eta Juanjo Igarzabalen (Zumarraga, 32:50) aurretik. Sanchez bosgarren aldiz aritu zen Zubeztian, eta kontentu zegoen. “Taldetxoa elkarrekin joan gara azkeneko itzulira arte, eta kilometro eta erdiren faltan erritmoa azkartu dugu. Esprintean gailendu naiz eta oso pozik nago. Iaz laugarren

ATERATZERA ANIMATU ZIREN KORRIKALARIEI ESKERRIK BEROENAK EMAN ZIZKIEN ZUBEZTIA ELKARTEAK

izan nintzen. Zubeztiakoa oso gustuko dudana lasterketa da”.

Emakumezkoetan Diana Vecillas gasteiztarra gailendu zen (37:03), Izaskun Beunza olaztiarraren (37:46) eta Ines Moreno altsasuarraren (39:08) aurretik. Zubeztia lasterketan bosgarren aldiz aritu zen Vecillas eta aurretik bitan igo zen podiumera. Aurten ez zuen irabaztea espero, “baina hasieratik oso ongi sentitu nintzen. Bertan behera geratu zen Donostiako maratoi erdia prestatzen aritu nintzenez, sasoi betean nago” nabarmendu zuen. Altsasuko lasterketa “asko” gustatzen zaio. “Antolakuntzak oso ongi tratatzen gaitu. Ahal dudana guztietan etorriko naiz”.

Bukaeran auzate ederra eskaini zien Zubeztia Elkartek korrikalariei, eta ondoren sari ematea izan zen. Antolakuntzak eskerrik beroenak eman zizkien

Sakandarrak

XLIII. Zubeztia Elkartea Lasterketa- III. Candi Arnanz Memoriala (10 km)

Gizonak:

1. Xabier Sanchez	32:46
2. Asier Estarriaga	32:47
4. Ekhi Congil	33:14
5. Mikel Astiz	33:15
6. Aritz Etxeberria	34:03
12. Ivan Sobredo	34:49
19. Jorge Azanza	36:27
22. Julen Ornat	36:43
23. Felix Benjumea	36:45
24. Mikel Berdud	36:46
25. Ruben Garcia	36:48
29. Juan Carlos Gomez	37:06
31. Iñaki Romero	37:43
39. Xabier Aiestaran	40:07
42. Xabier Borrega	41:12
43. Javier Borrega	41:16
46. Egoitz Aldaz	41:24

47. Javi Morras	41:40
52. David Fdz. de Garaialde y Lazkano	42:38
54. Alberto Arrizabalaga	42:41
59. Mikel Galarza	43:55
66. Josu Gilen Hualde	44:45
67. Ismael L. de Goikoetxea	44:48
69. Eukeni Goikoetxea	45:47
70. Javier Gasanz	45:47
71. Jon Lapuente	45:47
73. Jose A. Salgado	47:16
77. Jesus Bengoetxea	47:40
78. Iñigo Orella	49:11
82. Jesus Sayas	54:35

Emakumeak:

28. Diana Vecillas	37:03
32. Izaskun Beunza	37:46
35. Ines Moreno	39:08
44. Paula Diaz	41:19
49. Olatz Azazeta	42:03
68. Erkuden San Martin	45:42
80. Andrea Claver	51:15
84. Beatriz Vegas	56:46



Izaskun Beunzak ezin izan zuen garaipena lortu.



Saritutakoen talde argazkia, Zubeztia elkartearen sarreran.

korrikalariei, halako eguraldian parte hartu izanagatik, eta kolaboratzaileei. Lehen altsasuarren sariak Ekhi Congilek (laugarren, 33:14) eta Ines Morenok (hirugarren, 39:08) jaso zituzten, eta Zubeztia elkarteko lehen bazkidearen saria, aldiz, Ivan Sobredorendako izan zen (hamabigarren, 34:49).



Ines Moreno hirugarrena, helmugan.



2024/2025 denboraldi hasieran egin zuen Lagun Arteak denboraldiko taldeen aurkezpena.

Lagun Arteak: eraldaketa

FUTBOLA Lakuntzako Lagun Arteak zortzi futbol talde ditu 2024/2025 denboraldian, tartean sortu berri den futbol inklusiboko taldea. Nesken taldea sortzea da erronka nagusia. Aitor Goikoetxea futbol koordinatzaileak haize berriak ekarri ditu klubera

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Lehenengoz futbol koordinatzaileak du Lakuntzako Lagun Arteak Kirol Elkartek. Kluba handitzen ari zela, eta talde guztiak ongi koordinatzearen beharra ikusi zuen juntak. Beteluko Aitor Goikoetxea Iriartek onartu zuen erronka, eta bere antolaketa eta lan moldeei esker, ibilbide berria hasi du Lagun Arteak.

Entrenatzailea

Aitor Goikoetxea hainbat urte zeramatzan entrenatzaile, 2012tik. Tolosan nesken taldea entrenatu zuen lau denboraldiz, eta gero Lekunberriko Beti Kozkorren hasi zen, beste hiru denboraldiz emakumezkoen taldearekin lanean. "Nesken taldeko entrenatzaile nintzela, hirugarren mailako Beti Kozkor entrenatzen zuen Rodri Fernandez entrenatzailea laguntzen hasi nintzen.

Harreman ona genuen eta ongi funtzionatzen genuen. Horrela, bigarren B mailan lehiatzen zen Izarrara joan ginen biak, eta urtebete eman genuen bertan, eta ondoren hirugarren mailako Burlades entrenatu genuen" aipatu du Goikoetxeak. Tarte horretan, entrenatzaile izateko titulu guztiak atera zituen: lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena, profesionala, baita ere. "Gustura nenbilen entrenatzaile, baina klubeko beste taldeek nola funtzionatzen zuten ikusten nuen, zeuden gabeziak edo hobetu beharrekoak, entrenamen-

"LAGUN ARTEAN IKUSI NUEN ARGAZKIA GUSTATU ZITZ Aidan, AUZOLANARENA"
AITOR GOIKOETXEA

du motak, gurasoen kezak... gauza horiek guztiak kirol koordinatzaileek edo zuzendariak kudeatzen dituzte, eta horrekin nenbilen bueltaka. Espainiako Futbol Federazioak Las Rozasen duen egoitzak kirol koordinatzaile edo zuzendari izateko unibertsitate mailako ikastaroa du, eta bertan eman nuen izena. Astelehenetan joaten nintzen Madrilerara, klaseetara. Proiektu bat egin nuen eta hura gaindituta, titulua lortu nuen duela hiru urte".

Osasunaren ikuskatzailea

Kirol koordinatzaile izateko trebakuntza jasotzen ari zela, Osasuna futbol klubetik jarri ziren harremanetan Aitor Goikoetxearekin. "Nafarroako iparraldeko eremua ez zutela behar bezala kontrolatzen esan zidaten, eta ni bertakoa nintzenez, ea

Iparraldeko umeak begiratzen eta jarraitzen hasiko nintzen proposatu zidaten; hau da, ikuskatzailea izatea". Baiezkoa erantzun zion talde gorritxoari. "Joan zen denboraldian Doneztebeko entrenatzailea nintzen, aurretik Burlades utzi bainuen. Osasunako ikuskatzaile lanetan eza-gutu nuen Lagun Arteak klubeko Ainhoa Etxarri juntakidea, 2023ko maiatzean. Berak esan zidan Lagun Arteak futbol koordinatzailea behar zuela, klubean nolabaiteko ordena edo funtzionamendu bateratua eratzeko. Eta erronka onartu nuen".

Gustuko argazkia

Goikoetxea iazko ekainean Lagun Artean hasi zen lanean, futbol koordinatzaile gisa lehen aldiz. "Klub handiago baten eskaintza izan nuen, baina nahia-go izan nuen Lagun Arteak be-zalako talde txikiago batean hastea. Zuzendaritza junta oso langilea aurkitu nuen. Horrek harritu ninduen, guztiak oso inplikaturik baitaude. Beti daude lanean: Zelai Berriko zelaia moztzen eta markatzen, sarrerak kobratzen, tabernan... Ikusi nuen argazkia gustatu zitzaidan, auzolanarena".

Jende berria sartu da juntan, eta aurrekoekin batera, lantalde eraginkorra osatu dute. Javier Hernandezek jarraitzen du lehen-dakari. Xabi Lizarraga lehendakariordea da, Ainhoa Etxarri idazkaria eta Josu Arraiza diruzaina. Javier Andueza, Gonzalo Gomez, Miren Iriarte, Joxe Agirre, Joan Mumbru eta Egoitz Arraiza bokalak dira.

Zortzi talde

Ekainean bertan 2024/2025eko taldeak, plantillak eta entrenatzaileak osatu zituen Aitor Goikoetxeak, juntarekin elkarlanean. Zazpi talde ziren: benjaminak, kimuen mailako bi talde, infantilak, kadeteen mailako bi talde, jubenilak eta erregionala, talde nagusia. 148 futbolari eta hama-bi entrenatzaile guztira. Horretaz gain, futbolari txikiagoak Osasuna Fundazioan trebatzen dira. "Zazpi talde dira guztira,

"TALDEAK ONGI ARI DIRA. ERREGIONALA DINAMIKA ONEAN SARTU DA"
AITOR GOIKOETXEA

berriki sortu dugun futbol inklusibo taldearekin batera, zortzi. Guztiak ongi kontrolatu beharra datur, gainean egon".

Lagun Arteak klub txikia da, eta halakoetan denboraldi batzuetan jokalar asko izaten dira eta beste batzuetan, ez horrenbeste. Boladak izaten dira. Halakoei aurre egiteko azkeneko urteetan elkarlana dute Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek. "Esaterako, aurtun kadete mailako 27-28 jokalar genituen, talde baterako gehiegi, baina bi sortzeko nahiko justu. Etxarri Aranatz Kirol Elkarteko Inaki Elvirarekin harremanetan jarri, eta hark egindako proposamenekin azkenean bi taldeak atera ditugu. Bi klubek arteko elkarlanak segitzen du eta ezinbestekoa da".

Ordena eta metodologia

Aitor Goikoetxeak ordena jarri nahi zuen klubean, eta entrenamenduen eta partiden jarraipena egiteko metodologia bat ezarri. "Lagun Arteako juntarekin oso eskertuta nago, nik klubean sartu nahi nuen metodologia bati baiezkoa eman diotelako. Kirol gestioa edo kudeaketa egiten duen programa informatiko bat ezarri dugu. Entrenatzaile bakoitzak bere taldearen plan-tilla edo orria du, eta bere taldearekin egiten dituen entrenamendu eta partida guztien informazioa jaso behar du bertan, taldearen helburuak zehaztu, eta jarraipena egin. Ni, koordinatzailea naizenez, talde guztien fitxategietan sar naiteke, eta talde guztien informazio guztia dut. Badakit entrenamendu bakoitzean zer landu duten, nor dagoen lesionatuta, nork huts egin duen... Horrela, talde guztien jarraipena askoz ere hobeki egiten da". Entrenatzaileek ongi hartu omen dute sistema berria. "Nahiz eta beraiei lan bat eskatu, lan tresna bat da baita euren dako ere. Beraiei fitxa betetzea eskatzen die, baina onurak ikusten dizkiote. Behin martxa hartuta, azkar egiten den lana da. Pozik daude, egiten duten guztia jasota gelditzen delako. Golak, estatistikak, entrenamenduak... denetarikoz datuak sartzen dituzte".

Helburuak

Helburuez galdetuta, oso argi du futbol koordinatzaileak. "Beti pentsatu izan dut kategoria txi-

kienetan, infantiletaraino, helburua formazioa dela beti, futboleantrebatzea. Kadeteetatik gora lehiaketan pixka bat exijitzen hasi behar da".

Talde nagusia, erregional mailakoa, ongi ikusten du. "Igoera fasea jokatu ahal izateko ligako lehen lau postuetan sartzeko borrokan egon beharko luke. Historikoki Lagun Arteak talde ona izan da, bere garaian hiru garren mailan egon zen; gutxienez preferente mailan egon beharko litzateke. Hor ikusten dut nik. Taldea dinamika onean sartu da, azken bost partidetan berdinketa bat eta lau garaipen izan ditu, sailkapenean bosgarren da eta ea horrela jarraitzen duen. Jokalariak inplikaturik daude, entrenatzera seriotasunez doaz eta Ander Eguillor eta Santi Suarez entrenatzaileak lan ona egiten ari dira". Erregional mailan ikusgarri dabilen Sakanako taldeak: Altsasu liderra, Etxarri bigarrena eta Lagun Arteak bosgarrena. "Oso ongi ari dira".

Taldeak, ongi

Beste taldeei dagokienez, jubenilak ongi ikusten ditu. "Bigarren mailako liga irabazteko eta lehen mailara igotzeko aukerak ikusten dizkiot Jose Antonio Claverren taldeari. Hori gertatzea polita litzateke, datorren denboraldiari begira jubenilen bi talde sor genitzakeelako". Kadete mailako bi talde dituzte. "Bat oso ongi dabil, sailkapenaren goialdean. Bestea talde berriagoa

da, Etxarriko jendearekin osatuta, eta taldearen engranajea ongi lotzeko lanetan gaude. Indibidualki gauza onak ikusten zaizkio". Infantilen taldearekin liluraturik dago. "Elena Sanchezen autore taldea da. Nola kokatzen diren, nola jokatzeko duten... oso ongi ari dira". Kimuen mailako bi taldeekin ere pozik daude klubean, eta benjaminak aurtengo hasi dira lehiatzen, eta ongi.

Goikoetxeak arreta gehiago jartzen die okerrago dabilen taldeei. "Ongi dauden taldeei ez zaie kasurik egin behar. Badoaz aurrera. Okerrago daudenekin egotea gustatzen zait, galdu duen taldearekin, entrenatzailearekin gertu egon, zer hobetu dezakegun ikusteko".

Atezainen entrenatzaileak

Lagun Arteak aurtengo duen beste berrikuntza bat atezainen entrenatzaileak da. Beteluko Unai Oterminek infantilen, kadeteen, jubenilen eta erregional mailako atezainak entrenatzen ditu, eta kadeteen mailako Liher atezainak benjaminen eta kimuen taldeko atezainak. "Erregional mailako Adur Kanpo atezainak faltan botatzen zuten bera norbaitek entrenatzea eta aurtengo figura hori sartu dugu. Hau taldearendako plus bat da, atezainek egun batean euren propio den entrenamendu espezifikoa izatea".

Harrobi indartsua

Dagoeneko 2025/2016 denboraldian du burua Aitor Goikoetxeak.

"Zeintzuk pasatzen diren maila batetik bestera, benjaminetara zenbat sartuko diren... aurretik hori guztia lantzen joan behar da. Osasuna Fundazioko bi taldeetatik batek kide gutxi ditu, baina bigarren kintada ona dator. Harrobia indartsu dator, eta sentsazioak onak dira".

Erronka: nesken taldea sortzea

Datorren denboraldiko erronka garrantzitsua du Lagun Arteak: nesken taldea sortzea. Lakuntzako neskek lehen kadete mailaraino mutilekin batera jokatzeko zuten, baina egun gehienak beste taldeetan aritzen dira, Altsasun, Lekunberriko Beti Kozkorren eta bestelakoetan. "Azken egunotan Lagun Arteak Aste Santuan egingo dituen torneoa zehazten egon gara, baina berehala jarriko gara nesken taldea sortzeko egitasmoarekin. Printzipioz kategoriatik txikiro taldea sortzea litzateke asmoa, eta agian nesken taldea ate irekien jardunaldietan bat antolatuko dugu aurki, ea animatzen diren. Egundako taldeetan daudenak erakartzea oso zaila litzateke. Zazpi urte aritu naiz nesken taldeak entrenatzen, lau Tolosan eta hiru Lekunberrin, eta taldeetan sortzen diren harremanak eta loturak oso politak eta garrantzitsuak dira. Behin taldeak osatuta, oso zaila da taldeetatik ateratzea, nahiz eta aukera zure herrira bueltatzea izan. Horregatik, txikienekin hasteko asmoa dugu".

"Futbol talde inklusiboan harremana izugarria da"

AITOR GOIKOETXEA LAGUN ARTEAKO FUTBOL KOORDINATZAILEA

Sakanako lehen futbol talde inklusiboan sortu duzue Lagun Arteak. Nola sortu zen ideia?

Nafarroako Futbol Federazioan "Kirolean desgaitasunak" programan entrenatzaile gisa aritu nintzen futbol talde inklusiboekin azken hiru denboralditan. Tasubinsak Nafarroako Futbol Federazioarekin akordio bat zuten, eta Tasubinsa Orkoien, Tasubinsa Arazuri eta Tasubinsa Beriain, hiru talde horietan egon nintzen entrenatzaile. Lagun Arteak hasi nintzen, Zelai Berrira etorri nintzen lehenengo aldian parez pare Tasubinsa zegoela ikusi nuen. Eta arraroa egin zitzaidan Lakuntzako Tasubinsak halako futbol talderik atera ez izana. Federaziotik esan zuten programan

aldaketa egingo zutela eta aurtengo futbol talde inklusiboak klubetatik sortu behar zirela. Horregatik, Lagun Arteak jundari taldea sortzea planteatu nion, iruditzen zaidalako oso ona dela bai euren talde, bai bailara osoarendako, eta klubarendako baita ere. Onurak besterik ez daude. Animatu ginen, eta Lagun Arteak futbol talde inklusiboan atera dugu.

Zenbat daude taldean?

Egun hamar daude, baina taldea zabalik dago. Talde mistoak dira, baina momentuz gurean mutilak daude bakarrik. Neska batek izena eman zuten, baina ondoren atzera egin zuten. 16 urtetik gorako pertsonak izan behar dira, adin mugarik

"UMEARI EZIN DIOGU FUTBOLARI IZATEKO AMETSA KENDU, BAINA GURASOEI BAI"

gabe. Adin ezberdinetako kideak izaten dira, baina euren artean sortzen den harremana izugarria. izaten da. Zelai Berri ondoan dagoen Sakana frontoian entrenatzen dugu, hilean bizpahiru aldiz, ostiraletan. Lagun Arteak atezainen entrenatzaile den Unai Otermin eta biok aritzen gara entrenatzaile. Tasubinsan 16:30ean bukatzen dutela kontuan hartuta, 17:00etatik 18:00etara entrenatzen dugu, aldeaz aurretik zehaztutako ostiraletan.

Zer moduz ari zarete?

Oso ongi, gustura. Beraiek nola harremanetan diren ikustea pasada bat da. Batzuk ez zuten elkar ezagutzen, baina berehala sortzen da lotura. Sakana guztiko jendea dago: Irurtzun, Lakuntza, Olazti, Altsasu, Etxarri... eta baita nire herriko, Beteluko bat. Gustura dabilta. Taldea irekita dago, ea sakandarrak gehiago animatzen diren. Oso ongi pasako dugu! Jar daitezela gurekin harremanetan lasai asko.

Osasunaren ikuskatzailea izaten jarraitzen duzu?

Bai. Ikuskatzailea izateaz gain, aurtengo Nafarroako Iparraldeko arduradun izendatu naute. Sakanako hiru futbol klubak, Leizakoa, Doneztebe, Baztan, Ultzamaldea, Baztan... klub horiekin harremana dut. Benjaminekin eta kimuekin teknifikazio saioak egiten ditugu Altsasun eta Lekunberrin.

Tarteka fenomenoren bat ikusten al duzu?

Badago batean bat, baina oso zaila da. Kontu handiarekin ibili behar dugu, batez ere gurasoek espektatiba gehiegi izan ez ditzaten. Umeak ezin diogu futbolari izateko ametsa burutik kendu: amets hori bizitzen utzi behar zaie, eskubidea dute. Baina gurasoei, ez. Oso tarteka ateratzen da futbolari profesional bat, oso zaila da. Gurasoek argi izan behar dute oso-oso zaila dela.



2024/2025 erregional mailako Lagun Arteak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultu-
ra@guaixe.eus

OSTIRALA 13

ALTSASU Hitzaldia.

Aurrezten ikas dezagun hitzaldia: Bono soziala, telefonoen tarifikak, aseguruak...
11:30etan, jubilatuen elkartean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gorrito diskurtsoak ekimena: desberdinkeriaz hausnartzeko jarduera: Bidezko Merkataritzako txokolate tableta bat banatuko dute, eta munduan baliabideak nola dauden banatuta eta zein diren desberdinkeriak eta pobrezia-aren azpiko kasuak aztertuko dituzte.
17:30etik 19:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU Aurkezpena.

Bernoia Juan Luis Larrazaren liburuaren aurkezpena.
18:30etan, liburutegia.

IRURTZUN Antzerki-performancea.

Lotura Basatiak Goaz antzerki taldearen antzezlan-performancearen emanaldia. Irurtzungo Udalak Azaroaren 25aren harira antolatuta, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuaren egitarauaren barruan. Euskaraz.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Bizitzak Salbatzeko Musika Ubunturen ikuskizuna, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira Eskubide guztiak pertsona guztientzat programaren barruan, Memoria eta Bizikidetzazuzendaritza Nagusiak antolatuta. Sarrera: librea gonbidapenarekin.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Olaztik irakurle taldea: *La Trenza*, Laetitia Colombani idazlearen liburua. Izena ematea: 948 371 444 edo bibliola@navarra.es.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Etorkizuna Sunsundegui eta Sakanarentzat. Sunsundeguiako langileak borrokan Sunsundeguiako langileen elkarretaratzea.
19:30etan, udaletxearen aurrean.

ZIORDIA Santa Luzia.

19:30 Elektro Skapaie, gaztetxeak antolatuta. Urbasa eta Anixeta tabernetan eta gaztetxean odolki, gazta eta txorizo banaketa. Klean, taloak.
01:00 Boletus Rumberus, gaztetxeak antolatuta.
07:00 Gaupaseroen argazkia, gaztetxeak antolatuta.

ETXARRI ARANATZ

Bakarriketak.

Bakarriketak saioa: Amaia Ruiz de Galarreta, Lander Varona, Leo Bueriberri, Joxek Farra eta Asier Galarza bakarriketariak.
22:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 14

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Leze, 38 kilometro.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ZIORDIA Urteurrena.

Ziordiko Gaztetxearen 30. urteurrena.

13:30 Txupinazoa eta karro poteoa.

15:00 Herri bazkaria.

18:00 Bingo musikatua.

20:00 Pantxo Valbuenaren kontzertua.

23:00 Kontzertuak: Mandroll, Mataperros eta Bulkada taldeak.

07:00 Eroriei omenaldia.

LIZARRAGABENGOA Bertso bazkaria.

Joanes Illarregi eta Julio Soto bertsolariekin bertso bazkaria.
14:30etan, Bordatxo elkartean.

ALTSASU Festa.

Altsasuko Dendari Elkarreak antolatutako Gabonetako festa,

Altsasuko Udaren babesletzarekin eta TxokoGasen laguntzarekin.

17:00 Gabonetako moto kalejira, Altsasuko TxokoGas taldearekin: motorra moztarotuta, motorren hiri ibilbidea eta moto-mozorro onenari saria, Iru Bide jatetxearen eta Inmobiliaria Agurainen laguntzarekin, TxokoGas klubetik (Txunkai auzoa).

19:00 Motorren iritsiera Foru plazara.

19:30 Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko Gabonetako saskien zozketa.

20:00 Herri poteoa, Gautxori tabernan.

UNANU Ipuin kontaketa eta tailerra.

Babak eltzetik ateratzen ipuin saioa eta egin zure ilustrazioa Ixabel Agirresaroberekin. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25era harira antolatutako egitarauaren barruan.
18:00etan, elkartean.

ALTSASU Gazte agenda.

Party zozketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Txalaparta Kukai dantza taldearen eta Jesus Rubio Gamo koreografoaren arteko topaketatik sortutako ikuskizuna: Zazpi interprete erotiko murgiltzen dira dantzaren eta haiekiko ikuspegi garaikide baten arteko topaketak proposatzen duen espazio emozionalean", dio sinopsiak. Sarrerak: 10 euro (azkenak).
19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 15

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleen eta Altsasuko Mendigoizaleen irteera: Gorramendi, 12 kilometro. Izena ematea: 640 143 497.

06:00etan, autobus geltokian.

LAKUNTZA Topaketa.



ALTSASU Fluxu arte garaikideko zirkuitua: Elba Martinez – Erakusketa hedatua: Ekialderantz. Argi naturala elkarriketa sartuko da bere ehun, argazki eta pintura piezekin. Funtsezko osagai bat hitzaren erabilera da, horren bidez egunerokoaren arrotasuna atzeman nahi baita. Abenduaren 16tik urtarrilaren 12ra. lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

Lakuntzeko euskiaz, akordatzeko yeiz? Aihapenarik euskara taldearen topaketa.

12:00etan, liburutegian.

OLATZAGUTIA Elkartasun azoka.

Elkartasun Azoka: salmenta, hausnartzeko txokoa, giza eskubideen txokoa, pintxoaren txokoa, Salam Gaza txokoa, Sakana Harrera Haranaren txokoa eta jolas kooperatiboak. Sakanako Mankomunitateko Anizartean zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta herriko emakume talde batek antolatuta, Salam Gaza, Olatzagutiko udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Jasotakoa Salam Gaza Elkarteari bideratuko zaio.
12:00etatik 14:00etara, frontoian.

ASTELEHENA 16

ALTSASU Elkarretaratzea.


Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Irakurketa kluba.

Gaztelaniazko irakurketa kluba: El baile de las locas Victoria Mas idazlearen liburua.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko gelan.

ETXARRI ARANATZ Tailerra.

Zientzia eta teknologia tailerra: Elektrizitate tailerra.
18:30etik 20:00etara, liburutegian.



ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Here

Igandea 15 19:30

Vaiana 2

Igandea 15 17:00

Mon Pere, Le diable, Nafarroako Filmetekak Afrikako filmografiari buruzko zikloaren barruan
Astelehena 16 19:30

¿Es el enemigo? La película de Gila
Osteguna 19 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Pideme lo que quieras
Igandea 15 19:00

Cuando cae el otoño
Osteguna 19 19:00

ASTEARTEA 17

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzungo Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Musika Eskolak antolatuta.
Arratsaldean, kultur etxean.

ALTSASU Irakurketa kluba.

Gaztelaniazko irakurketa kluba: El baile de las locas Victoria Mas idazlearen liburua.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko gelan.

GONBIDAPENA

Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

'Piloto'

"Abenduaren 14an, goizeko 11:30ean, SAN PEDRON, Pilotokin pasatu tun bitzitzako momentuek goguatuta ospatuko tu."



ESKELA



Juan Mari Aguirre Baztarrika

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

56.ko kintoak

ESKELA



Juan Mari Aguirre Baztarrika

Zarela bidean estutu gaituzten eskuak. Zarela bide horretan marraztutako oinatzak. Zarela irribarre leialen islada. Zarela maitasun keinu amaigabea. Zarela jaso dugun besarkadarik politena. Guretzako dena zarela. Eskerrik asko, aita, garen honetan zuk emandakoa izan bait da oparirik handiena.

Zure familia

ASTEAZKENA 18

IRURTZUN Kontzertua.
Irurtzuno Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Musika Eskolak antolatuta.
Arratsaldean, kultur etxean.

ALTSASU Irakurketa kluba.
Euskarazko irakurketa kluba: *Arat mendiaren sumina* Yashar Kemal idazlearen liburua.
18:00etan, lortiarene erabilera anitzeko gelan.

LAKUNTZA Literatur solasaldia
Lurraz beste Garazi Arrularekin literatur solasaldia, Lakuntzako Udalak eta Sakanako Mankomunitateak Azaroaren 25aren harira antolatutako egitarauaren barruan.
18:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Irakurle taldea.
Pikuxarreko irakurle taldea: *Bekatua* liburua inguruko solasaldia Goiatz Labandibar idazlearekin.
19:00etan, Pikuxar elkartearen.

OSTIRALA 20

LAKUNTZA Zinekluba.
Haurrendako zinekluba.
18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Filmaren emanaldia.
Ai, hau pena nik! Jose Luis Erdoziaren Etxarri Aranazko hizketaren inguruko filmaren emanaldia. Azpitituluak euskara batuan. Sarrerak: 3 euro.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 19

IRURTZUN Kontzertua.
Irurtzuno Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Musika Eskolak antolatuta.
Arratsaldean, kultur etxean.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA
Kamioi eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila Sakanan. Curriculumak: tallercomion10@gmail.com / 948 507 019

HIGIEZINAK
ERRENTAN
Zure autokarabana, karabana edo furgoneta gorde nahi duzu? Iturmendin, pabiloi itxi batean plazak alokatzen dira, 24orduko alarmarekin. Deitu! 646 843 579.

IKASTAROA
Dorraon haurrendako tailerrak: Itur Aldea elkar-teak antolatuta, abenduaren 27an. Parte hartzeko izena eman beharko da.
Helduentzako Euskal Dantza ikastaroa Olaztin: Informazio gehiago eta izen emateak Olaztiko udaletxean.

Pintura ikastaroa Arbizun: Hasierberrientzat nahiz sakondu nahi dutenentzat. Asteazkenetan izanen da. Informazioa eta izen emateak Arbizuko udaletxean.

OHARRAK
Su hartu zuen Arberoa ikastola laguntzeko kanpaina: Kalte material izugarriak izan zituzten sutearen ondorioz eta bertako familiek sostengu kanpaina martxan jarri dute, online denda honetan: arberoadenda.wixsite.com/ikastola, diru ekarpenak egiteko kontu zenbaki honetan: FR76 1005 7195 2500 0202 0160 520 edota materiala eman nahi duenak haiekin harremanetan jarri daiteke arberoakoi-kastola@gmail.com.
Sarek deitutako manifestaziora joateko autobusa: Bilbon egingo den Bakea. Konponbidea. Elkarbizitza leloa duen manifestazioa urtarilaren 11n. Etxarri Aranatzeko txartelak salgai daude iada.

Odol emateak Arbizun: abenduaren 18an, 17:15tik 21:00etara.
Odol emateak Irurtzun: abenduaren 20ean, 16:45etik 21:00etara.
Iturmendin mintzakide taldea sortu dute: Ostegun arratsaldetan, kafe-tegarian bildu eta euskaraz hitz egiteko.
Arakilgo egutegirako argazki bila: Arakilgo Udala 2025 urteko egutegia egiteko Arakilgo txokoen argazki bila dabil. Informazio gehiago Arakilgo Udalean.
Altsasuko Udalak ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du: Ikasturte honetan garatutako diren jarduerak laguntzeko da. Dirulaguntza deialdiaren oinarriak eta informazioa www.altsasu.net webgunean.
iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



Jose Mari Artola eta Alberto Artola



Soilik ahazten dena dago hilda

Etxekoak

JAIO TZAK

• **Jare Lopez Goikoetxea**, azaroaren 15ean Iturmendin.

• **Ane Martinez de Ordoñana Aranburu**, azaroaren 8an Iturmendin.

• **Anwar Bakache Bayechou**, azaroaren 26an Altsasun.

• **Laia Blas Miguel**, azaroaren 28an Lakuntzan.

• **Jule Garde Lopetegi**, azaroaren 30ean Lakuntzan.

HERIOTZAK

• **Juan Maria Aguirre Baztarrika**, abenduaren 3an Olaztin.

• **Araceli Caballero Henares**, abenduaren 5ean Olaztin.

• **Maria Socorro Oricain Cia**, azaroaren 13an Iturmendin.

• **Pedro Miguel Quintana Ondarra**, azaroaren 13an Bakaikun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Garazi Arrula Ruiz idazle, itzultzaile eta editorea. GOIENA.EUS

Bizitza da ipuinetan gertatzen dena

Garazi Arrula Ruiz idazlearen 'Lurraz beste' ipuin bildumaren inguruko Literatur solasaldia antolatu du Sakanako Mankomunitateak eta Lakuntzako Udalak abenduaren 18an, asteazkena, Lakuntzako liburutegian

Eneida C. M. eta E. R. B. LAKUNTZA

Idazle, editore eta itzultzaile da Garazi Arrula Ruiz. Bata eta bestearen jarduna "oso banatuta" dituela eta "oso toki desberdinetatik" abiatzen dela esan du, baina batak bestea elikatzen du eta "irakurketa konpartitzen" dute. 2023an *Lurraz beste* zortzi ipuinez osatutako liburua kale-ratu zuen, eta "bailiburu honekin baita bestearekin ere zorte handia izan dut, Euskal Herrian barna ibili naiz". Abenduaren 18an, asteazkena, 18:30ean, Lakuntzako liburutegian egonen da, Sakanako Mankomunitateak eta Lakuntzako Udalak antolatutako Literatur solasaldian. "Nik kontatzen dut galdetzen didatena eta nik egin dudana; irakurleenarekin osagarri da".

Lurraz beste zortzi ipuinen bilduma bat da. Tokiak garrantzia handia du, eta pertsonaiek desplazamendu asko egiten dituzte, ez bakarrik modu fisikoan. "Egia da desplazamendu asko daudela; idatzi bitartean ez nuen horrela

ikusten, ez nintzen ohartu". Argitaratu zenean konturatu zen desplazamendu asko daudela, "eta horiek lotura daukate pertsonaien barne desplazamenduekin".

"Ipuin gehienak Nafarroako erdialdean kokatuta daude. Horiek dira nik ezagutzen ditudan espazioak eta iruditzen zait hor kokatzeak niri laguntzen didala, naturalagoa egiten zait". Idazleak gaineratu duenez, "ikus-entzunezkoak lagunduta ere", Tennesseeko ibai ertz bat irudikatzeak erraztasun gehiago dago, Txantrean edo Tafallan irudikatzeak baino, "eta literarioki berdinak dira".

Ezaugarriak

Arrula pertsonaien eraikuntzan "pausatzen" da, eta arreta handia jartzen du: "Pertsonaiak ezaugarritzen ibiltzen naiz eta ezaugarri horietatik hamar bat iritsiko dira liburura". Ezaugarri horiek "behar" dituela esan du idazleak, "ongi jakin behar dut gailera bat jatean zer nolako gailera jango lukeen edo harrituko bada nolako

harridura erakusten duen ezagutzeak". Koherentzia ematen dio pertsonaiari. Pertsonaiaetan "hainbeste sartzen" denez, aurreko ipuin liburutik "geratu" zitzaizkion bi lagun adiskidetasun harremana berreskuratu du.

Lurraz beste liburuko ipuinetan "ez dago etxafuegorik, ez dago distira handiko gertaerarik". Egunerokotasunezko egoerak agertzen dira, "barne desplazamenduak daude eta pertsonaiek ez dute bukatzen hasitako puntu berean". Gertatzen dena bizitza da, gauzak gertatzen dira, "baina ez dira atzemangarriak". Irakurleak noizbait "kexatu" izan direla esan du idazleak: "Ez dituzu ipuinak bukatzen! Denetarako dago... Ez zait inporta. Batzuetan bukaerak irekiak direnean edo bi aukera posible uzten denean zer gertatu den galdetzen didate, eta haiena nirea bezain balekoa da". Bidea interesatzen zaio, "puntu horretaraino zer aldaketa egon diren pertsona batengan edo harreman batean".

'Azken kantura' Zama doinuaz arinduren abestia aurkeztu dute

Abenduaren 5ean kaleratu zuten Ion Maiaren hitzak eta Ion de Luisen doinuak eta produkzioa duen kanta

ETXARRIA ARANATZ

Aitor Gorosabel, Ines Osinaga, Estitxu Pinatxo, Maider Ansa, Juantxo Arakama, Juanpa Agirre, Fran Urias, Petti, Itziar Ituño, Xabi Solano eta Josune Arakistain Süne musikariek parte hartu dute *Azken kantura* Zama Doinuz Arindu lan taldeak kaleratu duen abestian. Abenduaren 5ean aurkeztu zuten, eta ordutik abestia entzun eta bideoklipa ikus daiteke. Ion Maiak sortu du kantaren letra eta Ion de Luisen musika jarri eta produkzioa egin du.

Bi egunetan ospatuko da Zama Azken Doinuak Etxerantz jaialdia, urtarrilaren 24an eta 26an, Etxarri Aranatz; Zama Doinuz Arinduren hamargarren jaialdia, eta azkena. Lan taldeak ohar bidez jakinarazi duenez, "sentsazio gozoarekin eta herri honek bizi izan duen gatazkaren zama behin betiko atzean uzteko itxaropenarekin" eman dio bukaera proiektuari. *Azken kantura*-rekin bideari amaiera emateko "beste modu bat" dela adierazi dute, "gure memoria kolektiboan gertzea nahi duguna".



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Eguberriak

Eguberriak ate joka daude, eta horrekin batera bazkari, afari eta topaketa sozial ugari. Kaleak argiz eta jendez betetzen dira, eta horrekin batera gure itxura hobetzeko gogoa. Hori dela eta aurtengo tendentzia batzuk azalduko ditut.

• **Ilezko berokiak** Urteak eta urteak irauten duen tendentzia da, eta gainera beroa. Edozein estilorekin konbina daiteke, bai klasikoa nahiz modernoa, baita koloreekin ere. Beti sofistikazio puntu bat emanen digu, gure look-a mailatan jasoz.

• **Mary Jane** Zerrenda honetan ezin dira falta unean uneko zapatak. Egia esan, ez dira Sakanako negurako ez Eguberriarako aproposenak, baina udaberrirako opari bikaina da. "Manoletinaren" bertsio moderno gisa aipatu ditut Mary Jane zapatak. Tira batekin gurutzatzen du oinbularra. Edozein estilorekin ondo konbina daitezke.

• **Lehoinabar estanpazioa, animal print-a** Denboraldia baino hilabete batzuk lehenago

erre zuen arren, rankingeko top lean kokatzen da. Edozein kolore, tamaina eta arropatan ikus dezakegu: gonak, berokiak, zapatak, txanoak, prakak.... Polifazetikoa da, ez da erraza konbinatzen eta ausarta da, baina denok dugu gure armairuetan zer edo zer.

• **Behi estanpazioa** Behi estanpazioa lehoinabarraren print-a aurreratzen ari da, batik bat gainerakoak bezala jantzi nahi ez duten pertsonak aukeratzen dutelako. Egia da beste izaera bat islatzen duela behi estanpazioak; lehoinabarra basatiagoa eta ausartagoa da; behiarena, aldiz, goxoa eta beroa. Erosoagoa dirudi.

• **XXL gerrikoak** Denok dakigu osagarriak outfit-aren urrezko amaiera direla, eta XXL badira hobeto. Sentitzen dut, baina ni bezala pertsona txikitxo bazara, aldakan jarri beharrean gerrian jarri behar duzu, horrela gure itxura estilizatuko dugu eta ez dugu hankaren luzera moztuko.

• **Kanaberrazko bota oso altuak** Denboraldi guztietako klasiko bat, kanabera altuko bota beltzak dira. Hauek aproposak dira Sakanako negu gogorrerako eta Eguberriarako.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Sorpresa" bat izan zen Jasone Etxebeste lakuntzarrarendako Haize Berriak bandako zuzendaria izateko proposamena; pentsatu ondoren "erronka" hartu zuen. Bandako kidea da eta horrek zuzendari lanean lagunduko diola uste du; lehenengo kontzertua abenduaren 21ean, larunbatean, zuzenduko du, bandak Erkudengo Ama Abesbatzarekin emanen duen kontzertuan; Jon Zubiaga *Osoron*-ek parte hartuko du ere (bi saio: 18:00etan eta 20:00etan).

Nola heldu zitzaizun zuzendaria izateko aukera?

Sorpresa izan zen. David Sanchez zuzendaria zenari beste aukera bat sortu zaio, printzipioz aurtengorako, eta momentuan beste zuzendari bat behar zen. Bandako kideak direnak komentatu zidaten. Hasieran ezetz esan nuen, ezta pentsatu ere. Baina badaramatzat urte asko amatasunaren inguruan, haurrak zaintzen eta abar, eta pentsatu nuen aldaketa bat izan daitekeela, erronka bat. Azken finean, banda handi batekin ez dut inoiz horrelakorik egin; musika eskolako kontzertuak eta horrelakoak zuzendu ditut, baina banda bat zuzendu, programazioak egin eta abar, ez. Hasieran, zuzentzen hasi aurretik, urduri nengoen. Kapaza izango ote naizen pentsatzen nuen; betiko beldur horiek. Behin hori gaintutuz, urduritasuna sentitzen dut, baina gogo askorekin nago. Asteartean entseguak izan genuen eta esan nuen: "Ze gogoa kontzertua ailegatzeko eta egiteko".

Nola da Haize Berriak zuzentzea?

Etxeokoa naiz, eta orduan banda ezagutzen dut eta *feedback*-a badago. Musikari bezala oso hitzuna naiz, eta orduan orain entzuten ditudanean kide hitzunak esaten dut: "mesedez...". Giro polita dago. Egia esan, oso eroso nago. Oso-oso erraza jartzen ari zaizkit. Zerbait egin behar dudala esan, eta egingo dutela esaten didate. Jende asko dago inguruan, eta hori bandatan ez da oso ohikoa. Zuzendariak denak egin behar du: programaziotik hasi, banda zuzendu, kontzertuaren inguruan sortzen diren gauzak antolatu eta abar. Hori da hemen egiten uzten ez didatena. Zuzentzeaz ardurtzeko esaten didate. Koltxoi bat dago, eta oso interesgarria; lana pila bat errazten du. Printzipioz, oso ondo.

"Bandan giro polita dago; lana errazten didate"

JASONE ETXEBESTE HAIZE BERRIAK BANDA KO ZUZENDARIA

Lakuntzarrak Sakanako banda zuzentzeko "erronka" hartu du. Abenduaren 21ean izanen da bere lehenengo kontzertua zuzendari bezala; urduri eta "gogoekin" dago



Jasone Etxebeste Haize Berriak bandako zuzendaria.

Daviden zuzentzeko moduarekin aldaketarik dago? Nabaritzen da?

Bai, eta horrela izan behar da. Azkenean, zuzendaria asko da pertsona nolakoa den; izakera. Bi pertsona berdin ez daude, eta musikara bezala zuzendari as-

"BANDAREN LEHENENGO GABONETAKO KONTZERTUA IZANGO DA; EZ OHIKOA"

korekin lan egin dut eta beti dago zerbait positiboa guztiekin, eta gauza negatiboak ere. Izakerak dira. Zuzentzeko era hobe edo okerragoa izan daiteke, baina izakerak asko egiten du. Oso desberdin egingo dut. Gainera, berak musika zuzendaritza ikasketak egin ditu eta nik klarinetearenak dauzkat. Teknikoki Davidek mila buelta ematen dizkit. Suposatzen dut nik emango dizkiedala beste gauza batzuk; zuzendari guztiek bezala.

Serio jartzen zara?

Bai. Pixka bat kostatzen zait, baina jartzen naiz. Suposatzen dut kontzertuan urduritasunarekin serioago jarriko naizela. Lan egin behar denean lan egin behar da. Entseguak bi ordukoak dira eta egoten dira erlaxatzeko momentuak ere. Baina batzuetan esaten diet hamar minutuko kontzentrazioa behar dugula.

Musikari bezala egiten zenituen gauzei buruz konturatzen zara?

Bai; beno, kontzientea naiz. Hitz egitearena kontzientea naiz. Orain goitik dena ikusten dut. Telefonoekin daudenean, adibidez. Banda profesionala balitz, exijituko nuke telefonorik ez izatea, baina bandan lagunak ditugu eta bakarrik asteartetan eta larunbatetan ikusten ditugu, entsegu egunetan, orduan tarte utzi behar dugu. Entseguaren parte da; bandaren elkarbizitza da. Mugekin, baina tarte hori utzi behar da ere.

Zein da zuzendariaren lana?

Kontzertuak antolatu, datak jarri, eta kontzertu horiei forma eman. Nik uste hori zailena dela. Pentsatu behar dituzu gustatzen zaizkizun obrak bandarako egoiak izan daitezkeenak. Oso erraz programatzen baduzu, denentzat aspergarria da. Oso zaila egiten baduzu frustrazioa egon daiteke. Hori parekatu behar duzu eta kalitatezko kontzertu polit bat aurrera eramane. Gero, ondorengo afariak antolatu behar dira, kolaboratzen duten taldeekin hitz egin, kartela... Banda askotan lan hori zuzendariak egiten du. Hemen badago jendea hori egiten duena, musutruk: partiturak fotokopiatzeko artxiberoa dago, arropaz ardurtzen dena, kartelak egiten dituen eta abar. Azpiegitura handi bat dago, eta zuzendariari lana asko errazten dio.

Nolako kontzertu prestatzen ari zarete 21erako?

Erkudengo Ama Abesbatzarekin egingo dugu, eta koroak urtero Gabonetako kontzertua egiten du; Haize Berriak bandak ez du inoiz egin. Hortaz, Gabonetako kantak egongo dira, koroarekin abestuko ditugunak, tradizionalak: *Hator Hator*, *Mesias Sarritan*... Koroak bakarrik kanta batzuk egingo ditu eta bandak hiru abesti bakarrik egingo ditu ere. Gabonetakoak dira baina ez dira ohikoak: *The Nightmare Before Christmas* (Ametzgaiztoa Eguberrien Aurretik) filmeko abestia, Danny Elfmanek egindakoa da, bandarako, eta oso polita da; Dickensen *A Christmas Carol* ipuin musikatu egingo dugu ere, Jon Zubiaga *Osoron* izango da hizlaria eta iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko mamuaz egingo du. *Radetzky martxa* egingo dugu ere. Beti egoten da zerbait, eta horretan ari gara ere. Mozororen bat... Azken abestia koroarekin egingo dugu eta oso barregarria izango da ere; sorpresa egongo da.

2025erako, zer?

Bandak baditu data zehatz batzuk: inauteriak, martxoko kontzertua, San Juan Altsasun... Udan zerbait handia egin nahi dugu, prestatzen ari gara. Sakanako banda da, eta Sakanan zabaldu nahi dugu. Udalek eta herrietako jendeak ezagutzea nahi dugu. Gure asmoa da irekiak egotea eta mugitzea. Kontzertuak muntatuta daude, orduan beste herrietatik deitzea nahi dugu.



Anitzarteaneko proiektuan parte hartu duten emakumeak, zerbitzuko, Atakondoako eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak.

"Zerbait oso polita egiten ari ginela sentitu dugu"

Kulturartekotasun zikloan proiektu "berritzaile" bat sortu zen Irurtzongo jostuntza taldean. Besteak beste, Aurora Burgui jostunak, Bego Zestau Anitzarteaneko teknikariak, Agurtzane Goñi Atakondoako zuzendariak eta Lorea Moreno gizarte langileak parte hartu dute

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Zertan datza proiektua?

Bego. Asteartetan jatorri desberdinetako emakume talde bat biltzen gara udaletxean, elkar ezagutzen dugu eta askok komentatzen zuten laboreak, puntua, jostea eta abar egitea gustatzen zitzaizela. Jostuntza taldeari planteatu genion ea haiekin elkartuko ziren eta atsegin handiz baietz esan zuten. Maiatzean egindako jostuntza ekimenen jantziak konpontzen aritu ziren, eta konturatu ginen eskola-

ko festetan, Olentzeroan, adibidez, zenbait ikasleek arrazoi desberdinegatik ezin dutela baserriarrez jantzi. Pentsatu genuen Atakondoan galdetzea ea hainbat jantzi egiten bazituzten, eta baietz esan zuten.

2 Zeintzuk dira helburuak?

B. Helburu pila bat elkartzen dira. Alde batetik, haurrak ez dira desberdin sentituko jantzia ez izategatik. Bestetik, belaunaldi eta kultura desberdinetako emakumeak elkartzen joan dira. Maiatzean hasi ziren eta gaur egun

arte. Sakanan elkartasun proiektu berri bat da, baita Nafarroan ere berritzailea dela esango nuke. Emakume batzuk esan dute haiek ez dutela ezer egin, eta agian ez dute zuzenean jantziaren parte hartu, baina taldean emakumeak hartu dituzte eta hori ere bada.

3 Nork parte hartu du?

Aurora. Mari Carmenek tokillak eman ditu, beste bi Mari Carmenek eta Begoñak jantziak moztu eta albaindu dituzte, Soledadek, 90 urterekin, asko josi

du, eta nik ere makinarekin josi dut. Awatefek ere makinaz josi du, tunisiarra da, eta aurretik bazekien. Besteak beste, Daniela eta Margarita Hego amerikarrak eta Hortense, Kongokoa, ere gurekin egon dira.

4 Nola egin duzue lan?

Aurora. Denok sentitu dugu ari ginela zerbait oso polita egiten, pertsona guztiendako eta kulturartekoa. Integratuak egon gara, elkarrekin errespetatu gara eta oso ilusionatuta egon gara. Patroiak moztu zituztenetik jantziak bukatu dituzten arte oso eskuzabalak izan dira. Kolaborazio handi bat izan da.

5 Noiztik dago jostuntza taldea?

Aurora. Urte asko, hamarkadak. Bere garaian irakasle bat egon zen, eta gero guk jarraitu genuen. Tere Iriarte ezinbestekoa izan zen. Batak besteari erakusten dio. Aurten inoiz baino jende gehiago egon gara; ikasturte amaieran bazkari bat egiten dugu eta aurten 27 geunden! Politena izan zen Daniela, Margarita, Awatef eta abar ere etorri zirela eta oso pozik egon ziren.

6 Noiz elkartzen zarete?

Aurora. Asteartean eta ostegunetan; josi ondoren, merendatzen dugu. Askok baloratzen dut gure adinarekin asteen bitan elkartzea eta ilusioa izaten jarraitzea. Dakiguna elkarbanatzen dugu. Nik pertsonalki guztiak eskertu nahi ditut. Jubilatuen elkarteari eskerrak ematen diogu ere tokia uztegatik, eta udalari beti laguntzeagatik eta, adibidez orain, neguan, etortzen garenean berogailua jarrita dago. Oso gustura gaude.

7 Materialak nork jarri ditu?

Bego. Anitzarteanek zerbait jarri du, baina bestela jendeak eman du; parte hartu duen jendeak ekarri du behar zutena.

8 Zenbat jantzi egin dituzue?

B. Bost neskenak eta zazpi mutilen jantzien praka.

9 Nola antolatuko dituzue jantziak eskolan?

Agurtzane. Eskolan gertatzen da arrazoi ekonomikoengatik eta kulturalengatik ez dutela jantzirik etxean. Horrelako jantzi bat gastu garrantzitsua da. Behar dituztenean eskatzen dira, baina beti ez daude guztiendako. Zenbait familiak txiki geldituta-koak utzi dituzte eskolan, baina ez dira nahikoak. Orduan, proiektu honekin momenturen batean norbait jantzi gabe etortzen bada edo jantzia behar badu egun horretan jantzi dakiok eta eguna pasa dezake. Ekonomikoki oso ongi ez dauden familiak daude, eta proiektua laguntza handia da. Behintzat egun horretan berdin sentituko; ez izatea jantzi baten faltagatik. Batzuetan egun batzuetarako ere utzi izan ditugu. Eskolan 460 ikasle inguru daude, 17 bat jatorri.

10 Dinamika honekin jarraituko duzue?

Bego: Ikusiko dugu, orain baloratu beharko dugu.

11 Gaur Santa Luzia da, jostunen saildua. Ospatuko duzue?

Jostuntza taldea: Egia esan, ez dugu ezer prestatu. Biltzen garen bakoitzean ospatzen dugu, merenduarekin; eta zer nolako merenduak izaten dira, gainera!



EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk
DISEÑUA ETA
KOMUNIKAZIOA
of

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu